

The logo consists of the word "BBVA" in a bold, white, sans-serif font, followed by a vertical line and the word "Research" in a smaller, white, sans-serif font.

**BBVA** | Research

# Zertan den Nafarroa

2017 | ESPAINIA ETA PORTUGALGO UNITATEA



## Aurkibidea

<b>1. Editoriala</b>	<b>3</b>
<b>2. Nafarroako ekonomiaren perspektibak</b>	<b>6</b>
Nafarroako egoera ekonomikoaren azterketa, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren bidez. 2017ko hirugarren hiruhilekoa	31
<b>3. Autonomia-erkidegoen gastuen eta diru-sarreraren bilakaera, 2003tik 2016ra</b>	<b>34</b>
<b>4. Taulak</b>	<b>41</b>
<b>5. Glosarioa</b>	<b>44</b>

**Itxiera data:** 2017ko abenduak 4

# 1. Editoriala

**2017an Nafarroan BPGren hazkundera % 3,0ra iritsiko dela espero da, eta 2018an ere sendo jarraituko duela pentsatzen da, % 2,8ko erritmoan.** Espero den agertoki hori betetzen bada, Nafarroako ekonomiak % 2,8ko urteko hazkundera izango du bosgarren urtez batez beste, eta 1981etik aurrerako batez bestekoaren 0,6 p.p. goragotik kokatuko da. Horrela, krisi aurreko biztanleko BPGren maila gainditzea lortuko du, aurreikuspen honi dagokion epean. 2017ko azken hiruhilekoan eta 2018an zortzi mila lanpostu inguru sortuko direla espero da, eta langabezia-tasa % 8,8ra jaitsiko dela. Dena den, urte bukaeran, 2008. urte hasieran baino 3,5 p.p. goragotik jarraituko du langabezia-tasak. Horrez gain, Nafarroaren barnean, susperraldia ez da modu bertsuan gauzatzen ari bailara guztietan.

**Nafarroako BPGk u/u % 2,9 egin zuen aurrera 2016an, aldeko izan zituen faktore batzuei esker; faktore horien eraginek jarraitu egin dute, gainera, 2017ko lehen hiru hiruhilekoetan,** nahiz eta urtearen bigarren seiuhilekoan Espainiako ekonomia aurreikusitakoa baino motelago hazi. Hobekuntza hori kontsumoaren aurrerapenean (publikoan nahiz pribatuan) nabarmendu da batik bat, bai eta higiezinaren susperraldian ere. Barne-eskariari lagundu egin diote konfiantza hobetzeak, interes-tasak murrizteak eta kreditu-eragiketa berriak ugaltzeak. Gainera, aurreko urteetan ezarritako erreformek eta, horrekin batera, krisi aurreko garaietan sektore pribatuak metatutako desorekak murrizteak higiezinaren esparruko inbertsioari indartzen lagundu diote pixkana. Kanpo-eskariari dagokionez, turismo-espportazioek jokaera ona erakutsi dute, oro har Espainiakoa baino ekarpena txikiagoa izan badute ere; izan ere, zerbitzu turistikoek pisu erlatibo txikiagoa dute, eta indar handiagoa du eskualdeko industriak. **Ondasunen atalean, datu agregatuek 2016an eta 2017ko irailera arteko epean eroriko bat izan dela erakutsi arren, eskaintzaren esparruko baldintzatzaileen ondorio izan da eroriko** hori, produkzio-linean izandako aldaketen ondorio, esaterako; baina horren eraginpetik kanpo dauden sektoreek bilakaera egokia izan dute. Ildo horretatik, Europan eta munduan eskariak hobera egiteak aukera eman du kanpoan elikagaien eta semimanufakturen salmentak areagotzeko, eta, Landabengo lantokian modelo berria abiarazi ondoren ere, horixe egin behar luke automobilgintzaren sektoreak, eskualdeko espportazioek bultzatuta. Beraz, kanpora gehiago irekitzeak onurak ekarriko dizkio eskualdeari.

**2017ko bigarren seiuhilekoaz eskura ditugun datuen arabera, hazkundeak bere indarraldiari eutsi dio, kontsumo pribatuaren esparruan bereziki;** aldagai horrek dinamismo txikiagoa erakutsi du beste eskualde batzuetan, eta horixe dago hazkundera beherantz berrikusi behar izan den kasu askoren atzean. Hala, 2017ko bigarren seiuhilekoan, % 0,8 haz daiteke batez beste eskualdeko BPG (h/h, UEEZ<sup>1</sup>), lehen seiuhilekoan eta Espainian bigarren seiuhilekoan sumatu den antzera. Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestak ere islatu du hobekuntza hori, eta 2017ko hirugarren hiruhilekoari dagokion boladan oinarrituta, erantzun-saldo garbi positiboak lortzen dira laugarren hiruhilekoz segidan, bai hiruhileko honetako ikuspegiaren eta bai hurrengorako egindako aurreikuspenetan (ikus 1. errekoadroa).

1: UEEZ: urtarokotasun eta egutegi-eraginak zuzenduta.

**Aurrera begira, espero da aldeko izango duen kanpo-ingurunea eta EBZren diru-politika lagungarri gertatuko direla susperraldiak jarrai dezan.** Badirudi hazkunde globalak aukera emango duela 2008tik batez besteko hazkundearen ginetik leudekeen hainbat hiruhileko lotzeko, eta horrek jarraitu egingo du hurrengo urtean ere. Gainera, modu sinkronizatuagoan ari da hazten mundu-ekonomia. Garrantzi berezia du Espainiarentzat EDBn hazkundera handiagoa izateak; esparru horretan, BPGren aurrerapena % 2 inguruan legoke batez beste 2017an eta 2018an. Dena den, garatutako ekonomietako enplegu sorrerarekin batera, inflazioaren hazkunde jarraitua ari da gertatzen; finantzaketa-kostuak historikoki baxuak diren mailetan mantenduko lituzketen diru-politikak ekar ditzake horrek. Kontsumoa eta inbertsioa indartzen eta babesten jarraituko da kredituaren bidez. Nafarroako ondasunen eta zerbitzuen eskaria sustatu behar luke horrek munduan, eta kontuan hartu behar da, gainera, Nafarroak bere kontu publikoetan doikuntza txikiagoak egin behar dituela.

**Hala ere, ziurgabetasunarekin lotutako beste puntu bat sarrarazi dute hainbat faktorek azken hilabeteotan.** Alde batetik, Katalunian abuztuan izan ziren atentatu terroristek atzerriko turisten bisitak baldintza ditzakete<sup>2</sup>. Azken urteotan, konparazioan Espainiak zuen abantailetakoa bat segurtasuna zen: helmugako beste herrialde batzuekin alderatuta, halako segurtasun bat hautematen zen; dena den, horrek ez du horrenbesteko eraginik Nafarroan, atzerriko turismoarekiko mendekotasun txikiagoa duenez. Hala ere, atentatuak gertakari atipikoak izan zirela berretsiz gero, eragin hori nahiko moderatua izan daiteke azkenean.

**Bestalde, areagotu egin da Kataluniako testuinguru politikoarekin lotutako ziurgabetasuna.** Indartu egin da aldagai finantzario batzuen aldakortasuna, bai eta politika ekonomikoari buruzko ziurgabetasuna ere. Nafarroa ez dago Kataluniako ekonomiari lotuta arriskua handiena duten autonomia-erkidegoen artean (ez zuenean eta ez zeharka), baina politika ekonomikoari buruzko ziurgabetasuna neurtzen duten adierazleak oso gora iritsi dira, 2016koekin alderatuta. Kataluniako egungo testuinguru politikoak BPGn izan dezakeen eragina neurtzea oso konplikatu da, ziurgabetasun horrek ez baitauka loturarik iraganean sumatutakoekin. Gainera, beste eskualde batzuk kutsatzeko arriskua ere badagoela ikusi da, modu berezi batean, Espainiako ekonomiak aurrez aurre duen gertakari honen ondorioz: etorkizunari begira, tentsio handiago horrek eragin negatiboak izan ditzake gastuaren esparruan kontsumitzaileek eta enpresek hartu beharreko erabakietan. Ekonomiaren gain horrek izango dituen ondorioak batez ere ziurgabetasun-mailaren eta denboran horrek duen iraupenaren arabera izango dira, eta, beraz, eragin luze-zabala izango duela uste da: atariko zenbait estimazioen arabera, urrian behatutako ziurgabetasuna 2018. urte amaiera arte luzatuko balitz, jardueraren gaineko eragina BPGren % 0,2tik % 1,1era artekoa izan liteke, tentsiorik gabeko agertokian izango litzatekeenarekin alderatuta.

**Bestalde, Nafarroako Foru Gobernuak nahiz oro har herri-administrazioek 2018rako zehaztutako defizit-helburua beteko dutela aurreikusten da,** kontuan hartuta zer neurri hartu diren eta nola lagundu duen susperraldi ekonomikoak. Hala ere, 2018. urtea Estatuko Aurrekontu Orokorrak luzatuz hasiko dela espero daiteke. Ezarri beharreko politika ekonomikoari buruzko ziurgabetasuna dakar horrek, eta hobe litzateke zerga-baterakuntzaren eragin ekonomikoa txikiagotuko luketen neurri bereziak hartzea. **Epe ertainera, hortxe jarraitzen du gobernu zentralaren zerga-politikari buruzko ziurgabetasunak,** eta, beraz, kontu publikoak bateratzeko prozesuarekin

2: Ikusi *Situación España 4T17*, hemen: <https://www.bbvaesearch.com/public-compuesta/situacion-espana-cuarto-trimestre-2017/>



jarraitu beharra dago. Ikuspegi horretatik, argitalpen honetako hirugarren atalean, 2003tik 2016ra autonomia-erkidegoetan egindako gastuen eta diru-sarreraren azterketa egin da. Foru-erkidego den aldetik, batez besteko profilarekiko desberdina erakusten du Nafarroak diru-sarrera eta gastuetan, apur bat beheraxeago kokatuz gastuaren kasuan.

Hala ere, **Nafarroako ekonomiak oraindik berarekin dituen desorekak murrizten jarraitu beharrak nahitaezkoa egiten du** produktibitatearen hazkundea indartuko duten **erreforma berriak aintzat hartzea**, aldi berean enpleguari eutsiz eta munduarekiko gehiegizko zorpetzea taxuz zuzenduz. Interes berezia hartuko dute zeregin horretan **lan-merkatua hobetzera** (langabezia-tasa altua eta aldi baterako lanen tasa murriztuz, gazteen artean batik bat) eta **produktibitatea indartzen jarraituzera zuzentzen diren neurriek**. Europako Batzordearen datuek argi erakusten dute lotura estua dagoela **gizarte digitalaren egokitzapenaren** eta eskualdearen lehiakortasunaren artean. Teknologia berrietara egokitzeari dagokionez, Espainiako batez bestekoaren inguruan kokatzen da Nafarroa, baina Europako eskualde garrantzitsuenen azpitik dago; eta produktibitatearen eta biztanleko BPGren etorkizuneko hazkundeari dagokionez, desabantaila bat adierazten du horrek haiekin konparatuta. Pareko eskualdeek edo eskualde konparagarriek, Frantziakoek eta Austriakoek, bereziki, bilakaera hobea izan dute bi adierazleotan azken urteetan. Hortaz, funtsezkoa da giza kapitala hobetzea, talentua erakartzea eta enpresen batez besteko neurria handitzea, Nafarroako ekonomiaren digitalizazio-prozesuan aurrera egiteko ezinbesteko faktoreak baitira.

## 2. Nafarroako ekonomiaren perspektibak

Aldezkarri honen aurreko zenbakian aurreikusitakoaren ildotik<sup>3</sup>, **Nafarroako ekonomia % 2,9ko erritmoan hazi zen 2016<sup>4</sup> (u/u), eta, jarduerari buruzko datuak eta sortu diren espektatibak kontuan hartuta, urtea BPGren % 3,0ko hazkundearen itxi dezakeela esan daiteke**, azken 35 urteotan erregistratutako batezbestekoa (% 2,2) baino zortzi hamarren gorago kokatuz. Zehazki, MICA-BBVA eredu<sup>5</sup> aintzat hartuta, Nafarroako BPG % 0,8 inguru (h/h) hazi da batez beste urteko lehen hiru hiruhilekoetan, eta, horri esker, % 3,0ko hazkundearekin amaituko luke 2017. urtea (ikus 2.1 grafikoa). Bat dator hori Nafarroako Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestan aurtengo hiruhilekoetan sumatutako joeren ondorioz sortutako espektatiba baikorrekin (ikus 2.2 grafikoa).

**2017an % 3,0 hazi ondoren, Nafarroako BPGren hazkundera moteldu egingo da apur bat 2018an, % 2,8ra iritsi arte. Aurreikuspen horiek betetzen badira, zortzi mila enplegu sortuko dira 2017ko laugarren hiruhileko honetatik hasita 2018ko urte amaiera bitartean.** Dena den, aurrerapen hori ez da aski oraindik, 2018. urte amaieran eskualdeko enplegu-maila 2008. urte hasierakoa baino % 4 txikiagoa izango dela uste baita. Jarduerari buruz orain arte eskura ditugun datu baikorrek agerrarazi dute agertoki hori, bai eta euskarri izan dituen beste faktore batzuek ere: mundu-hazkunde sendoak, bai eta Europako ekonomiarenak ere, petrolioaren prezioa nahiko txikia izateak, eta diru-politika hedakorrak, besteak beste. Horri kontrajarrita, ahitzen ari dira aldeko izan dituen baldintza batzuk, bai eta pilotutako eskaria eta kanpoko turismoaren susperraldia ere, eta ez da aldeko gertatu, Kataluniako gertakariekin lotuta, tentsio politikoa areagotu izana ere.

### Zerbitzu publiko nahiz pribatuak eta industria izan dira hazkundearen euskarriak

**Eskualdeko BPGren 2016ko hazkundeaz INEk egin zuen lehen estimazioak Nafarroan jarduera % 2,9 hazi zela<sup>6</sup> erakutsi zuen (Espainian, % 3,2).** Espero izatekoa zen erritmoan suspertu zela islatzen du horrek, kontsumoan (pribatua nahiz publikoa) izandako hazkundera eta inbertsioan hasi berri den hobekuntza euskarritzat hartuta, eta nahiz eta esportazioek, eskaintzarekin lotutako faktoreen ondorioz, behera egin. Eskaintzaren atalean, Nafarroako eta Espainiako BPGren hazkundera antzekoa izan zen osaueraren ikuspegitik, baina nabarmendu beharra dago zerbitzu pribatuek 0,6 p.p. gutxiagoko ekarpena egin dutela foru-erkidegoaren kasuan; dena den, ezin izan zen alde hori erabat orekatu industria-sektoreko nahiz administrazio publiko eta gizarte-zerbitzuetako diferentzial hobeen bidez (bi hamarren lehen kasuan eta hamarren bat bigarrean) (ikus 2.3 grafikoa).

3: Ikusi *Zertan den Nafarroa* 2016, hemen: <https://www.bbva.com/public-compuesta/situacion-navarra-2016/>


4: Martxoaren 30ean, autonomia-erkidegoetako 2016ko BPGren hazkunderari buruzko lehen estimazioa argitaratu zuen INEK. [http://www.ine.es/prensa/cre\\_2016\\_1.pdf](http://www.ine.es/prensa/cre_2016_1.pdf)

5: Ikusi *MICA-BBVA: A Factor Model of Economic and Financial Indicators for Short-term GDP Forecasting*, hemen:

<https://www.bbva.com/en/publicaciones/mica-bbva-a-factor-model-of-economic-and-financial-indicators-for-short-term-gdp-forecasting/6>: Ikusi 2016ko eskualdeko BPGren hazkundera, hemen: [https://www.bbva.com/wp-content/uploads/2017/03/Flash\\_PIB-REG-300320172.pdf](https://www.bbva.com/wp-content/uploads/2017/03/Flash_PIB-REG-300320172.pdf)


6: Ikusi 2016ko eskualdeko BPGren hazkundera, hemen: [https://www.bbva.com/wp-content/uploads/2017/03/Flash\\_PIB-REG-300320172.pdf](https://www.bbva.com/wp-content/uploads/2017/03/Flash_PIB-REG-300320172.pdf)

**2.1 grafikoa** BPGren hazkundera, MICA-BBVA ereduaren arabera (h/h, %, UEEZ)




(e) aurreikuspen edo estimazioa.  
Iturria: BBVA Research

**2.2 grafikoa** Nafarroa: jarduera eta perspektibak, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren arabera (% muturreko erantzunen saldoa)



Iturria: BBVA

**2.3 grafikoa** BPGren hazkundera 2016an, eta sektoreen ekarpenak (u/u, % eta p.p.)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

## Bizkortu egin da kontsumo pribatuaren hazkundera 2016ko bigarren erdian


**Nafarroako familien kontsumo-gastuak gora egin zuen bai 2016an eta bai 2017ko lehen hiruhilekoetan, aldeko izan dituen zenbait baldintzari esker.** Hazkunde horren euskarri izan diren faktore horien artean daude, besteak beste, historikoki baxuak diren interes-tasei eustea, familiek eskura duten aberastasuna handitzea eta petrolioaren prezioei nahiko behetik eustea<sup>7</sup>. Nafarroako barne-kontsumoa % 1,6 hazi zen 2016an, BBVAk eskualderako landutako kontsumo-adierazle sintetikoaren arabera (ISCR-Nafarroa)<sup>8</sup>, Espainiako multzo osoan baino 1,4 p.p. gutxiago. 2016.

7: Nafarroako etxeek eta Espainiak batez bestekoak euren gastuaren antzeko zatia zuzentzen dute garraiora. Hala ere, foru erikidegoren ekonomiak petrolioaren aurrean duen sentiberatasuna apur bat handiagoa da. Ikusi *BBVA Research, Observatorio Regional 1T17*, [hemen](#).

8: Kontsumo-adierazle sintetikoa eskualdeko gastu partzialen adierazle nagusietatik abiatuta osatzen da: txikizkako salmentak, ibilgailuen matrikulazioak, zerbitzuen sektorearen jarduera-indizea, kontsumo-ondasunen inportazioak, erregaiak eta barne-kontsumo nazionala. Adierazlea osatzeko metodologia osagai nagusien

urtearen bigarren erdian batez beste hiruhilekoen artea 0,4 (h/h) hazi ondoren (UEEZ) eta 2016ko laugarren hiruhilekoan matrikulazioetan eta txikizkako salmentetan geldialdi bat izan ondoren, bizkortzen hasi zen kontsumoa, eta bizkorraldi horri eutsi egin zaio 2017ko lehen hiru hiruhilekotan (ikusi 2.4 grafikoa). Horietan, Nafarroako ISCR adierazleak batez beste % 0,9ko hazkundea izan duela adierazten du (h/h, UEEZ); garai horretan matrikulazioetan izandako bilakaera positiboa eta aurtengo lehen seiuhilekoan txikizkako salmentetan eta Zerbitzuen Sektorereko Jarduera Indizean sumatutakoa izan ditu lagun hazkunde horrek (ikusi 2.1 koadroa). Hortaz, eskualdean kontsumoak batez beste izan duen hazkundeak estatuko batezbestekoa gaindituko luke, 2012tik lehen aldiz.

**2.4 grafikoa** Eskualderako zehaztutako kontsumoaren adierazle sintetikoa, ISCR (% h/h, UEEZ)



(e) estimazioa, eskura dugun azken informazioaren arabera.  
Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

**2.1 taula** Kontsumo pribatuaren adierazle nagusien hazkunde eta aurreikuspenak (% h/h, UEEZ)

	MATRIKULAZIOAK		TXIKIZKAKO SALMENTAK		ZSJI (IASS)		KONTSUMO ONDASUNEN INPORTAZIOAK*	
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia
<b>% h/h (UEEZ)</b>								
1H16	2,1	4,0	0,2	1,3	-1,2	0,5	-5,8	3,3
2H16	8,7	5,6	1,0	0,3	1,6	1,2	-2,5	0,8
3H16	-2,6	-2,0	0,5	1,0	3,1	1,9	22,6	-0,7
4H16	-7,1	2,5	-0,9	0,0	0,9	1,7	-8,3	4,3
<b>2016 (u/u)</b>	<b>5,3</b>	<b>12,4</b>	<b>3,3</b>	<b>3,7</b>	<b>4,1</b>	<b>4,2</b>	<b>5,0</b>	<b>7,2</b>
1H17	15,4	0,7	1,6	-0,5	4,1	1,8	-4,1	-1,6
2H17	-2,5	4,9	2,5	2,0	3,3	1,7	-1,3	3,6
3H17	1,8	-0,2	-0,3	0,3	0,3	0,7	2,4	-0,1
4H17 (a)	3,0	1,9	-0,6	0,0				
<b>Metatua 2017 (u/u)</b>	<b>-3,3</b>	<b>-1,6</b>	<b>2,5</b>	<b>1,0</b>	<b>10,3</b>	<b>6,5</b>	<b>-0,6</b>	<b>4,9</b>

\*Kontsumo ondasun iraunkorrak+kontsumo manufakturarak.

(a) aurreikuspena, eskura dugun azken informazioaren arabera: kontsumo ondasunak eta ZSJI, irailera artekoa; matrikulazioak eta txikizkako salmentak, urriarteakoa.  
Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta


azterketan oinarritzen da. Informazio gehiago izateko, ikusi [R.1 ¿Afecta la evolución de la demanda doméstica al crecimiento de las exportaciones? en Situación España, 4 Trimestre 2015, BBVA Research.](#)



## Nafarroako gobernua kontsumoa eta inbertsio publikoa sustatu ditu, berriz ere, 2017ko irailera arte

**Aurrekontuak gauzatzeari buruz 2017ko irailera arte eskura ditugun datuen arabera, Nafarroako gobernua azken kontsumoari dagokion gastua suspertzen ari da berriz; ildo horretan, areagotu egin du hazkunde-erritua, % 5,2ra arte, eta autonomia-erkidegoetako batezbestekoaren hagitz gainetik dago hori (% 2,7 u/u). Era berean, inbertsio-gastua hedatzeko bideari heldu dio berriz Nafarroak: % 5,9ko hazkundera izan du u/u (ikus 2.5 eta 2.6 grafikoak).**

**2.5 grafikoa** Nafarroako Foru Erkidegoa: azken kontsumo nominala. Urtarriletik abuztura metatua (u/u, %)




(\*) Azken kontsumo nominaleko gastuari dagokion hurbilketa, kapital finkoaren kontsumoa kanpoan utzita.

(A) Aurrerapena

Iturria: BBVA, Research, MINHAFPen oinarrituta

**2.6 grafikoa** Nafarroako Foru Erkidegoa: kapital nominalaren eraketa gordina. Urtarriletik abuztura metatua (u/u, %)



(A) Aurrerapena

Iturria: BBVA Research, MINHAFPen oinarrituta

## Autonomia-erkidegoen artean, Nafarroan hazi da gehien obra publikoa 2017an, iaz murriztu ondoren


**Nafarroan, obra publiko berrien lizitazioak batez beste 2016an baino jokabide okerragoa erakutsi du, baina nabarmen egin du gora 2017ko lehen bederatz hila bitartean.** Bien bitartean, oro har Espainian lizitazioen aurrekontuak ia geldirik jarraitu zuen oro har 2016an (-% 0,8 urte artean); Nafarroan, ordea, % 62,4 murriztu zen. Obra zibilari zor zaio batez ere uzurtze hori, atal horri dagokion aurrekontua % 75,6 murriztu baitzen iazko urtean (Espainian, batez beste, % 6,2koa izan zen gainbehera). Bestalde, eraikuntzara zuzendutako zenbatekoa % 15,4 hazi zen 2015ekoarekiko, eta bat dator hori, nolabait, Espainian batez beste izan zen % 10,9ko susperraldiarekin. Iazko urtean, lizitazioaren zatirik handiena bizitegiz besterako obrek bildu zuten, eta urbanizazio-lanen eta obra hidraulikoen atala datoz haren atzetik.

**Obra publikoen lizitazioan izandako geldialdiari aurre egin zaio aurten, eta, urtarriletik urrira bitartean, lizitatutako obra publikoen zenbatekoak aise gairatu du aurreko urtean garai horretan izandakoa: % 174,5 handiagoa izan da.** Autonomia-erkidegoetan izan den hazkunderik handiena adierazten du. Obra moten arabera, bi

segmentuetan izan dira gorakadak: garai horretan, obra zibilen lizitazioa % 120,9 hazi zen; eta eraikuntzari dagokiona, % 255,5 (ikusi 2.7 grafikoa). Aurrekontuetako sail nagusiak bizitegi-izaerako obrak, errepideak eta urbanizazio-lanak egiteko esleitu dira nagusiki.


Erakunde finantzatzaileei dagokienez, **2016an lizitazioetan izandako gainbehera estatuaren ekarpenak eta lurralde-erakundeak murriztearen ondorio izan zen** (hurrenez hurren, -% 95,0 eta -% 48,9). Hala, estatuak eskualdean obra publikoaren lizitazioan zuen pisua % 3,9ra arte murriztu zen; azken hiru urteotako murrizketa txikiena da, dena den. **Dinamika hori goitik behera aldatu da 2017ko lehen hamar hilabeteetan**, bi kasuetan: estatuaren lizitazioari dagokion zenbatekoa laukoiztu egin da ia (% 284,8 u/u), oso maila baxuetan egon ondoren; eta lurralde-erakundeetako, berriz, % 168,2 hazi da (u/u, ikusi 2.8 grafikoa).

**2.7 grafikoa** Obra publikoa obra motaren arabera: 2017ko urtariletik urrira arte arteko hazkundeari egindako ekarpena (puntu portzentualak)



Iturria: BBVA Research, SEOPANen oinarrituta

**2.8 grafikoa** Nafarroa: lizitazioa erakunde finantzatzaileka, 2017ko urtariletik urrira (milioi € eta % u/u)



Iturria: BBVA Research, SEOPANen oinarrituta

## 2017an, enpresa-inbertsioak gaintu egin du 2016an izandako beheraldia


**Enpresa-inbertsioak suspertzen ari dela erakusten duten seinale batzuk eman ditu, ñabardurak ñabardura eta nahiz eta oraindik ahul samarra izan. Zehazki, 2016an % 2,4ko ererikoa (u/u) izan ondoren, ekipamendu-ondasunen inportazioak % 6,0 hazi dira (u/u) aurten, aurtengo irailera arteko datu metatuetan.** lazko urteko ererikoa aintzat hartuta (estatu mailan % 6,6 hazi ziren; ikusi 2.9 grafikoa), inportazioak 932 M€-koak izan ziren balio nominaletan. Hala, ekipamendu-ondasunen inportazioa ez zen iritsi miliar eurora, 2010ean eta 2011n maila horretara iritsi arren. Aurtengo irailaren aurreko 12 hilabeteetan metatua kontuan hartuta ere, inportazioak ez dira iristen atalase horretara. Bestalde, Nafarroako Estatistika Institutuko Eskualdeko Hiruhileko Kontabilitateak erakutsi duenez, inbertsioko kontu-sailek halako geldialdi bat izan dute 2017ko lehen erdian, eta kapitalaren eraketa gordinean % 0,1eko ererikoa izan dute urte artean.

**Bestalde, bizitegiz besterako eraikuntzaren bilakaera Espainiako batezbestekoa baino okerragoa izan zen 2016an, baina joera hori irauli egin da 2017an orain arte,** maila baxuetatik abiatuta, betiere. Nafarroan, bizitegiz

besteraiko eraikuntzarako bisatutako azalera<sup>9</sup> % 43,1 murriztu zen urte artean, iazko urtean; aldiz, Espainian % 0,7 jaitsi zen batez beste. Eraikin motei erreparatuta, bisatutako azalaren murrizketa merkataritza-zerbitzu eta biltegiarako eraikinen eraikuntzari dagokio batez ere, baina baita industria-erabilerakoei ere; aldiz, bulegoetarako bisatutako azalera handitu egin zen 2015koarekiko. Aurtengo irailera bitartean, dena den, bizitegiz besteraiko eraikuntzak gorakada esanguratsua izan du Nafarroan. Zehazki, bisatutako azalera % 161,1 hazi da, eta 47.000 metro koadrotara iritsi da ia; estatuan osotara, urte arteko gorakada % 5,5koa izan da. Industria-erabilerako eraikinen gorakadak eragin du hazkundea batik bat, baina baita nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerakoen gorakadak ere.


**Ikuspegi kualitatiboago batetik, 2017ko hirugarren hiruhilekoaz Nafarroako Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestak inbertsioari erreparatuta eman dituen emaitzek ikuspegi baikorra erakusten jarraitzen dute:** 2016ko lehen hilabeteetan ziurgabetasun handia bizi izan ondoren, saldo garbi positiboak nabarmendu dira sektore guztietan laugarren hiruhilekoz segidan, inkestari erantzun diotenen iritzia oinarri hartuta, nahiz eta guzti-guztietan behera egin den apur bat aurreko hiruhilekoarekiko (ikus 2.10 grafikoa).

**2.9 grafikoa** Bizitegiz besteraiko eraikuntza bisatuen hazkundea (m<sup>2</sup>) eta ekipamendu-ondasunen inportazioak (% , u/u)\*



\*2017ko irailera arteko datuak, bisatuen kasuan abuztura artekoak.  
Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan eta Datacomex-en oinarrituta

**2.10 grafikoa** Nafarroa: inbertsioaren bilakaera sektorez sektore, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren arabera (erantzunen saldoak, %)



Iturria: BBVA

## Etxebizitzen salmenta bizkortu egin da urtearen lehen erdian

**Nafarroan etxebizitzen salmenta suspertzen ari dela pixkana erakutsi dute 2016ko eta 2017ko lehen erdiko datuek.** Hala ere, dinamismo hori maila apalagoan iritsi da prezioetara: 2016an % 0,8 erori ondoren, apurtxo bat baino ez dute egin gora 2017ko lehen hiru hiruhilekoetan (% 0,8). Ildo beretik, eraikuntza-jarduerak ere ez du erakutsi suspertzeko joera nabarmenik, eta, 2016ko hazkundearen ostean, atzera egin da bisatuen sinaduran, 2017ko lehen zortzi hilabeteetan.

9: Besteak beste, merkataritza eta biltegiak, nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak, industriak, bulegoak, turismora eta aisialdira, garraio-zerbitzuetara eta abarretara zuzendutako eraikinak.


**Etxebizitzaren salmenta igo egin zen 2016an, estatuko batezbestekoaren azpitik jarraitu duen arren.** Urtarokotasun eta egutegi-eraginak zuzendu ondoren, bizitegi-izaerako higiezin salerosketak % 1,6 hazi ziren batez beste hilean, hiruhilekoko tasan, 2016an (ikus 2.11 grafikoa). Urte horretan, 4.946 etxebizitza saldu ziren Nafarroan, eta % 9,1eko hazkundera adierazten du horrek 2015ekoarekiko; Espainian batez beste izan den hazkunderaren azpitik dago hori (% 13,9). Nafarroako bizitegi-izaerako higiezin barne-eskariarekiko mendekotasun handiagoak azalduko luke hori, neurri batean. Hala, 2016an, salerosketen % 86,4 eskualdean bizi zirenei zegozkien, eta % 9,3ko hazkundera islatzen du horrek 2015ekoarekiko (estatuko % 16,2ko batezbestekoaren azpitik). Hala ere, eskariaren barneko segmentu dinamikoak, atzerriarrenak (+% 26,7 u/u), ez du pisu handirik eskualdeko merkatuan (eskualdean egindako erosketen % 6,2 soilik). Bestalde, beste autonomia-erkidego batzuetan bizi direnek egindako erosketak % 3,3 jaitsi ziren urte arteko tasan (Espainian, + % 0,7ko hazkundera batez beste).

**2017ko lehen sei hilekoko datuek, berriz, etxebizitzaren salmentak bizkortu egin direla erakusten dute, aurreko urtekoekin alderatuta.** Zehazki, urtearen lehen erdian, salmentak % 20,9 hazi ziren; Espainian, % 17,3 hazi ziren batez beste. Ildo horretatik, Sustapen Ministerioaren datuen arabera, 2.884 etxebizitza saldu ziren aurten urtariletik ekainera bitartean; aurreko urtean, 2.386 etxebizitza saldu ziren garai berean. Hiruhilekoei erreparatuta, urtearen lehen hiruhilekoan salmentak nabarmen hazi zirela ikus daiteke, eta joera hori zuzendu egin zen bigarren; sei hilekoan, hiruhilekoko batez besteko hazkundera, beraz, % 0,7koa izan da (UEEZ). Lehen sei hilekoan, Nafarroako egoiliarren eragiketak % 16,2 hazi ziren urte artean, eta salerosketa guztien % 83,2 dagozkie. Bestalde, egoiliarrek beste autonomia-erkidego batzuetan egindako erosketek nahiko erritmo handian egin zuten gora (+% 65,4 u/u). Ildo horretatik, eskarian segmentu horrek duen pisua % 9,6koa izatera iritsi zen, eta estatuko batezbestekoa baino apurtxo bat handiagoa izan zen (% 9,4). Atzerriarren erosketak, berriz, % 39,9 hazi ziren urte artean, urtearen lehen sei hilekoan, baina, pisu handirik ez dutenez, ez zuen horrek merkatuan eragin handirik izan: erosketen % 7,4 soilik egin zituzten atzerriarrek, estatuko batezbestekoa baino 10 p.p. beherago kokatuz.

**Nafarroan, etxebizitzaren prezioak ez du oro har Espainian izan duen igoaldirik izan.** Hala, Sustapen Ministerioak bildutako tasazio-balioen arabera, etxebizitzaren prezioa % 0,8 soilik hazi zen urte artean Nafarroan 2017ko lehen hiru hiruhilekoetan, eta 2016an sumatutako behaldia parekatuko luke horrek ia (-% 0,8). Espainian, guttiz bestelako bilakaera izan du oro har arlo horrek, etxebizitzaren prezioa % 2,2 hazi baita 2017ko lehen hiru hiruhilekoetan; hazkunde hori 2016ko % 1,9ko hazkundera irantsi behar zaio gainera. Hala ere, 2017ko hirugarren hiruhilekoaren itxieran, etxebizitzaren prezioa metro koadroko 1.335,9 €-ra igo zen Nafarroan.


**Etxebizitza berrien bisatuen sinadura nabarmen hazi zen Nafarroan 2016an, baina joera positiboa eten egin da 2017an.** Hala, 2015eko hazkunderaren ostean, bisatuen sinadura % 43,0 hazi zen, eta hazkunde hori, aldiz, % 28,9koa izan zen Espainian. Osotara, 1.522 etxebizitza berri eraikitze baimenak sinatu ziren 2016an Nafarroan, hiruhilekoz hiruhileko joerak aldatu arren: urtearen erdialdeko hiruhilekoak izan ziren onenak ikuspegi horretatik (ikus 2.12 grafikoa). Bestalde, 2017ko datuetan oinarrituta, eraikuntza-jarduera uzurtu egin dela ikus daiteke, baita hirugarren hiruhilekorako azalduko emaitza onak kontuan hartuta ere. Horrela, 2017ko lehen bederatz hilebetetan onartutako bisatuak 1.008 izan ziren Nafarroan, 2016an denboraldi horretan bertan onartutakoak baino % 22,5 gutxiago. Uzurtze hori ez dator bat, inola ere, Espainian garai horretan batez beste erregistratutako bisatuen sinaduren gorakadarekin (+% 26,9).

**2.11 grafikoa** Nafarroa: etxebizitzaren salmenta (UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

**2.12 grafikoa** Nafarroa: etxebizitza berrien eraikuntzarako bisatuak (UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

**2.2 koadroa** Nafarroa eta Espainia: higiezinaren merkaturako aldagaiak (% u/u)

	Etxebizitza salmentak				Etxebizitzaren prezioa		Etxebizitza berrien bisatuak			
	2016		1S17		2016	3H17	2016		urt-abu 2017	
	Etxebizitzak	% u/u	Etxebizitzak	% u/u	% u/u	% u/u	Etxebizitzak	% u/u	Etxebizitzak	% u/u
<b>Nafarroa</b>	4.946	9,1	2.884	20,9	-0,8	0,8	1.522	43,0	876	-18,6
<b>Espainia</b>	457.738	13,9	264.369	16,4	1,9	2,2	64.038	28,9	53.977	25,9

Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

**Ondasun errealeen esportazioak eta inportazioak ahul, eskaintzaren esparruko faktoreak tarteko**

**2016an Nafarroan ondasun errealeen esportazioak % 1,9 murriztu ostean (+% 3,8 oro har Espainian), eskuragarri ditugun aurtengo datuek diote murriztu egingo direla berriro (ikusi 2.13 grafikoa).** lazko urtean esportatutako ondasunei dagozkien 8.338 milioi euroak aurreko biurtekoko esportazio nominalen batezbestekoaren parekoak dira ia, eta 2011tik laugarren urtez segidan, 8 miliarreko kopuruak gainditu dira. Horrela, atzerriko salmentek Nafarroako BPGren % 43,8 adierazten dute; azken biurtekoko minimoa izan arren, Espainiako batezbestekoaren 20,9 p.p. gainetik dago hori. **Aurtengo hirugarren hiruhilekoaz orain arte eskura ditugun datuek, ordea, esportazioek berriro behera egin dutela adierazten dute: batez beste, % 3,3 egin dute behera h/h (UEEZ).**


**Nafarroako esportazio-sektore nagusiak hazi egin ziren 2016an; kontsumo-ondasun iraunkorrek aparte utzita, gora egin zuten esportazioek, % 1,5 u/u.** Dena den, % 75,1eko murrizketa izan da ondasun horietan 2016an (376 milioi 2015ean, eta 94 urte horretan); esportazioen bilakaerari 3,3 p.p. kendu zizkion horrek. Sektorereko enpresa nagusietako baten egoitza soziala eta fiskala Nafarroatik Aragoira aldatzeak eragin du murrizketa hori, neurri handi batean (270 mil.€); dena den, ez du eraginik izan horrek enpleguan eta produkzioan oraingoz<sup>10</sup>. **2017ari dagokionez,**

10: <http://www.noticiasdenavarra.com/2016/10/20/economia/navarra-pleno-ayerdi-dice-que-la-actividad-exportadora-sigue-siendo-una-sena-de-identidad-de-navarra-con-este-gobierno>




urteko lehen bederatzi hilabeteetan metatutako esportazioen ererikoa automobilgintzaren sektoreko kanpoko salmentak % 15,8 murriztearen ondorio izan da; % 2,2ko hazkundera (u/u) nabarmendu da gainerako produktuetan. Landabengo automobilgintza-lantegian modelo berri baten ekoizpenerako prestaketa-lanek ekarri dute ereriko hori<sup>11</sup>. Gainerako sektore nagusietan, elikagaien sektorea % 5 inguru hazi da bai iaz eta bai aurten; ekipamendu-ondasunak % 3,1 hazi ziren u/u iazko urtean, baina % 6,6 egin dute behera aurten (ikusi 2.14 grafikoa).

**2.13 grafikoa** Nafarroa eta Espainia: esportazio errealak (1H12=100, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

**2.14 grafikoa** Nafarroa: esportazioak eta sektorekako ekarpenak (% u/u, p.p.)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

**2016an, Nafarroak helmugako bost merkatu nagusitan egindako salmentak murriztu egin ziren aurreko urtekoekin alderatuta:** lau merkatu nagusietara egindako salmenta guztiak (Frantzia, Alemania, Italia eta Erresuma Batua dira, eta Nafarroako esportazioen erdia dagokie osotara) % 4,5 jaitsi ziren u/u, eta ez dago alde handirik batzuen eta besteen artean; Mexikora zuzendu zirenak ere % 41,7 murriztu ziren, eta helmugako bosgarren merkatua da herrialde hori, Nafarroaren kasuan. Horren garrantzitsuak ez diren beste merkatu batzuetara egindako salmenten gorakadarekin orekatu zen hori, neurri batean. Horietako batzuk herrialde garatuak dira, eurogunekoak (Belgika, +% 6,0) edo gune horretatik kanpokoak (Estatu Batuak, +% 9,1); beste batzuk gorabidean diren herrialdeak dira, hala nola Turkia (+% 31,9; % 4,7ko kuota dagokio Nafarroako esportazioetan); eta badaude garrantzi erlatibo txikixeagoa dutenak ere. Esate baterako, Txina, India, Maroko edo Uruguairi Nafarroak kanpoan egindako salmenten % 5,0 dagokie, 2015eko salmentekiko % 52,4ko hazkundera izan ondoren.


**Brexit** prozesuak eragindako ziurgabetasunaren testuinguruan, britainiar merkatuak laugarren lekua bete zuten iaz, Nafarroako esportazioen helmugako herrialde gisa. % 3,0ko ererikoa (u/u) izan arren, eskualdeko salmenten % 7,2 egokitu zitzaion (estatuko batez bestekoa baino 3 hamarren gutxiago); **eskualdeko BPGren % 3,2ren baliokidea**, alegia. Dena den, helmuga gisa duen garrantzi erlatiboari begira, ez da modu homogeneoan ageri sektorez sektore. Elikaduraren sektoreak du garrantzirik handiena: britainiar merkatura zuzendutako kanpo-

11: [https://www.elespanol.com/economia/empresas/20171115/262224123\\_0.html](https://www.elespanol.com/economia/empresas/20171115/262224123_0.html)

salmentetan, % 20,3ko kuota dagokio (204 milioi euro), eskualdeko BPGren % 1,1en baliokidea, beraz. Nafarroako esportazio-sektore nagusiak, automobilgintzak, antzeko pisua du eskualdeko BPGren ikuspegitik; esparru horrek kanpoan egindako salmentetan, % 5,8 dira Erresuma Batura zuzentzen direnak. Bestalde, ekipamendu-ondasunen sektoreak esportatzen duena aintzat hartuta, % 4,4 saltzen du merkatu hartan, eta semimanufakturenak, berriz, % 6,4; hurrenez hurren, % 0,5 eta % 0,3 dagozkie eskualdeko BPGn. **Urte honetako irailera arte eskuragarri ditugun datuei erreparatuta, Nafarroatik Erresuma Batura zuzendutako esportazioen erorikoa (-% 3,8 u/u) txikiagoa izan zen esportazio guztien erorikoa baino (-% 5,8).** Herrialde horretako ekipamendu-ondasunen salmentetan eta automobilgintzakoetan hurrenez hurren % 13,4ko eta % 8,3ko murrizketak izan arn, elikagaiak salmenta nominalak hazi egin ziren (+% 0,2 u/u).


**Bestalde, ondasun errealen inportazioa ere murriztu egin da aurten, 2016an halako geldialdi bat izan ondoren (+% 0,1 u/u):** 2017ko lehen hiru hiruhilekoetako erorikoa % 6,5koa izan da u/u, metatuta (ikus 2.16 grafikoa). Automobilgintzaren sektorean inportazio gutxiago egin izanari legezkiok bi heren (-% 13,8 u/u, eta inportazio guztien herena dira); aipatu ditugun eskaintza-faktoreak leudeke horren atzean. Kontsumo-ondasun iraunkorren inportazioa ere murriztu egin da (% -12,5, eta % 7,0ko kuota), eta baita semimanufakturena ere (-% 2,6, kopuru osoaren bostena). Laburbilduz, superabit komertziala erakusten jarraitzen du Nafarroak, baina 2016an 3.811 mil.€-ra iritsi ondoren (eskualdeko BPGren % 20,0), aurtengo irailera arteko 12 hilabeteko adierazle metatuan % 6,8 murriztu da, eta 3.551 mill.€-ra jaitsi.

**2.15 grafikoa** Erresuma Batura zuzendu diren esportazioak, sektoreetako kopuru osoekiko eta eskualdeko BPGn duten pisuaren arabera (% , 2016)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

**2.16 grafikoa** Nafarroa: inportazio errealak (1H12=100, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

## Turismoaren hazkundera apaldu egin da 2017an, baina markak hautsi dira berriro bidaiarien kopuruan eta ostatu-gauetan


**2017an, moteldu egin da turismoaren hazkundera Nafarroan, baina, laugarren urtez segidan, errekorrak hautsiko dira bidaiarien kopuruan eta ostatu-gauetan.** 2016ko susperraldi indartsuaren ostean (% 8,5 inguruko hazkundera bai bidaiarien kopuruan eta bai ostatu-gauetan; ikusi 2.17 grafikoa), aurten (urrira bitartean), hazkundeak

indar pixka bat galdu du, bai sartu diren turistei eta bai ostatu-gauei dagokienez; aurtengo urtea % 2 inguruko hazkundearekin amaituko duela esan daiteke, milioi bidaiariko kopurua gaintuz lehenengo aldiz, eta ostatu-gauean 1,9 milioira iritsita.

**Espainiako egoiliarrei dagokien segmentuak (eskualdeko turismoaren hiru laurden) argi islatzen du bilakaera hori, nahiz eta 2016an aurten baino hazkunde handiagoa izan zuen:** % 9,3 hazi zen bidaiarien kopurua 2016an, eta % 2,1eko hazkundera izan da aurten (ostatu-gauean hazkundera % 7,9tik % 2,6ra murriztu da). Hazkunde-tasak ez dira oso desberdinak atzeritarren kasuan, antzeko joerak nabari baitira: atzerriko bidaiarien hazkundera % 9,6koa izan zen 2016an, eta % 1,0koa aurten; ostatu-gauean hazkundera, berriz, % 6,5etik % 4,3ra jaitsi da. Espainiarrek eskuragarri duten errenta handitzea eta konfiantza sendotzea, beste merkatu batzuetako arazo geopolitikoak eta garraio-kostu nahiko merkeak izan ditu horrek guztiak euskarri nagusi.


**Turisten jatorriari erreparatuta, eskualdeko egoiliarrek ez direnen artean, hirugarren talde indartsuena britainiarrena da, *brexita* oztopo gertatu arren;** frantziarrak (hiru aldiz gehiago), eta alemaniarrek (apur bat gutxiago) dituzte aurretik. Azken biurtekoan, turista atzeritarren % 8 izan dira britainiarrak, eta Nafarroako bidaiari guztien % 2,3 inguru dira.

**2.17 grafikoa** Bidaiariak hotelen eta ostatu-gauean arabera (1H12=100, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

**2.18 grafikoa** Hoteletako prezioen indizea (errealak\*, 2008=100)



\* Espainiako KPIren arabera deflaktatua.  
Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

**Bestalde, hoteletako prezio errealetan ere moteldu egin da hazkundera aurten Nafarroan, iazko urtean gora egin ondoren.** Hotelaren sektoreak 2016an prezio errealetan izandako hazkundera (+% 2,2 u/u) bat dator, bigarren urtez segidan, ostatu-gauean gorakadarekin; 2017ko lehen hiru hiruhilekoetan, apaldu egin da hazkundera (+% 0,4 u/u). Motel ari dela suspertzen erakusten du horrek, 2008ko mailetatik urrun kokatzen baita oraindik; eta Nafarroarekin muga egiten duten eskualdeekin alderatuta, halako tarteko posizio batean kokatzen da Nafarroa (ikusi 2.18 grafikoa).

## Hobera egiten jarraitu du Nafarroako lan-merkatuak, eta bizkortu egin da hobekuntza 2017ko bigarren erdian

**Nafarroan, Gizarte Segurantzako afiliazioak % 2,6ko hazkundearekin amaitu zuen 2016ko urtea**, estatuko batezbestekoa baino lau hamarren beheragotik; urtearen bigarren erdian bizkortu ondoren gertatu zen hori (batez beste % 0,7 h/h, UEEZ). Erritmo horri eutsi egin zitzaion 2017ko lehen seihilekoan, eta, azarora arteko datuak eta aurreikuspenak kontuan hartuta, pentsa daiteke **Nafarroak bigarren seihilekoa batez beste % 0,9 inguruko hazkundearekin (h/h, UEEZ) amaituko duela (ikusi 2.3 koadroa). Urte arteko datuei erreparatuta, +% 2,9ko hazkundera adierazten du horrek**, estatuko batez bestekoaren zazpi hamarren azpitik kokatuz.

**Sektoreen ikuspegitik, eraikuntzak eta zerbitzu pribatuek Nafarroan ekarpen txikiagoa egin izanaren ondorio izan daiteke 2016an Espainian bezain indartsu ez agertzea**; ostalaritzaz, jarduera profesionalaz eta merkataritza, garraio eta ibilgailuen konponketaren multzoaz ari gara bereziki. Aldiz, diferentzial hori orekatu egin zuten neurri batean manufakturen ekarpenak eta zerbitzu publikoenak. **2017ko lehen erdian, joera horiek errepikatu egin ziren, eta manufakturen sektoreko afiliazioa hazi egin zen Nafarroan**; lagungarri gertatu zen hori berriro ere ostalaritzaren eta eraikuntzaren ekarpen txikiagoa orekatzeko. **2017ko azarora arteko datuak eta horien araberrako aurreikuspenak aintzat hartuta, esan daiteke Nafarroan afiliazioa suspertu egingo dela bigarren seihilekoan**, Espainian islatutako joeraren kontrara. Eskualdeko manufakturen sektoreak eta eraikuntzak egindako ekarpenak leudeke horren atzean, zerbitzu pribatu batzuekin batera.

2.3 koadroa Gizarte Segurantzako afiliazioak hazkunderari egindako ekarpena (h/h, %, UEEZ)

	Nafarroa						Espainia					
	1S16	2S16	2016	1S17	3H17	4H17*	1S16	2S16	2016	1S17	3H17	4H17*
Nekazaritza	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,1	0,1	0,0	0,0	0,0
Erauzketa ind. eta energia	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Manufaktura	0,1	0,1	0,5	0,3	0,2	0,3	0,1	0,1	0,3	0,1	0,1	0,1
Eraikuntza	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,1	0,0	0,1	0,2	0,1	0,1	0,1
Merk., garraioa eta konponk.	0,1	0,1	0,4	0,1	0,0	0,1	0,1	0,2	0,6	0,2	0,1	0,1
Ostalaritza	0,1	0,1	0,3	0,0	0,0	0,1	0,1	0,1	0,5	0,1	0,0	0,1
Komuni., finantza eta higiez.	0,0	0,0	-0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,2	0,0	0,0	0,1
Jarduera profesionalak	0,1	0,1	0,5	0,1	0,2	0,3	0,1	0,1	0,6	0,2	0,1	0,2
Zerbitzu publikoak	0,2	0,1	0,8	0,2	0,3	0,3	0,2	0,2	0,5	0,2	0,2	0,3
Gizarte-zerb. eta Arte Jardue.	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0	0,2	0,0	0,0	0,0
Gainerakoak (etxea barne)	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
<b>Guztira</b>	<b>0,6</b>	<b>0,6</b>	<b>2,6</b>	<b>0,8</b>	<b>0,7</b>	<b>1,1</b>	<b>0,7</b>	<b>0,9</b>	<b>3,0</b>	<b>1,0</b>	<b>0,7</b>	<b>0,9</b>


\* 4H17 estimazioak dira, azarora arteko datuetan oinarrituta.

Iturria: BBVA Research, Gizarte Segurantzaren oinarrituta. Seihileko datuak hiruhilekoen batezbestekoak dira

Horrekin batera, **Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) berretsi du eskualdeak lan-merkatuan bilakaera positiboa izango duela, ikuspegi sektorialetik afiliazioan ikusitako konposizioaren antzekoa agertuz, baina zenbateko txikixeagoetan**. Iaz, % 1,3 inguruko hazkundera erakutsi zuen batez beste BAIk, nahiz eta 2H16an enpleguan izan zen erorikoak eragina izan. Sektoreen ikuspegitik eta afiliazioan gertatu bezala, industriari eta zerbitzuek sustatu zuten lanpostuen sorrera Nafarroan. Afiliazioari buruzko datuetan, alde nagusia eraikuntzaren sektoreari dagokio: BAIren arabera, ekarpen negatiboa egin zuen 2016an, baina, 2017ko hirugarren hiruhilekora arteko datuen arabera, ekarpen hori leheneratu egingo litzateke.

**Eskualdeen ikuspegitik, afiliazioaren bilakaera heterogeneoa da Nafarroan krisiaren ostean, 2.19 eta 2.20 grafikoek erakusten dutenez. 2.19 grafikoak krisi osteko maila baxuenetik (3H13) afiliazioa nola hazi den erakusten du. Erdialdeko eta hegoaldeko bailarak dira dinamikoak, eta hazkundeak % 14,3ren (Erriberan) eta % 9,1en artean kokatzen dira (azken hori gainditu egin da Estellerrian eta Nafarroako Erdialdearen Ekialdean). Iruñean eta Tuteran –Nafarroako afiliazioaren hiru laurden dagozkie–, % 10eko hazkundea gainditu da 3H13koarekiko. Aldiz, hazkundea txikiagoa izan da ipar-mendebaldean (+% 3,9) eta Pirinioetan (+% 0,5).**

**2.19 grafikoa** Nafarroa: Gizarte Segurantzako afiliazioa eskualdeen arabera, kopuru minimoekiko (%-tan 3H13tik 23H17ra)



Iturria: BBVA Research, Gizarte Segurantzaren eta Nafarroako Estadistika Institutuan oinarrituta.

**2.20 grafikoak erakusten duenez, enplegu gutxien Iruñeko eskualdeak galdu zuen<sup>12</sup>, eta eskualde horixe dago krisi aurreko maila berreskuratzetik gertuen. Urteko % 2,9 inguruko hazkundea izan du batez beste urtean 2015etik<sup>13</sup>. Erriberako eta Tuterako eskualdeek erakutsi dute dinamismorik handiena azken urteotan: % 3tik gora batez beste u/u, krisialdian gainerako eskualdeek baino eroriko handi eta azkarragoa izan ondoren. Nafarroako Erdialdearen Ekialdean eta Estellerrian (Nafarroako afiliazioaren hamarrena adierazten du bakoitzak ia), uzkurraldia**

12: Iruñeko eskualdeari dagozkio Nafarroako afiliazioaren bi heren ia; Tuterari, % 11 inguru, eta Erriberari, % 8 baino gehiago, ia ipar-mendebaldearen (% 7,6) eta Pirinioetakoan (% 1,2) arteko batura adina. Estellerriari eta Nafarroako Erdialdearen Ekialdeari afiliazio osoaren % 4 inguru dagozkie.  
13: Batezbestekorako 2017ko datutzat, 3H17ra arteko urte arteko metatua hartu da.




txikixeagoa izan zen krisi ostean, eta bien batez besteko urteko hazkundera % 2,7koa da 2015etik. Aldiz, ipar-mendebaldeko eta Pirinioetako eskualdeak (Nafarroako afiliazioaren % 8,8) ozta-ozta iritsi dira % 1,1eko hazkundera garai horretan betan. Beraz, Iruñeko eskualdeak krisi aurreko enplegu-maila berreskura dezake, aurreikusitako garai honen amaieran.

**Lan-merkatuaren bilakaera positiboa izan dela erakusten du langabeen kopurua gutxitu izanak ere: % 7,5 u/u 2016an batez beste erregistratutakoetan; eta -% 9,3ra iritsi da u/u aurtan, orain arte. Nafarroako biztanleria aktiboa gutxitzea lagungarri gertatu da langabezia-tasa batez beste % 12,5 inguruan kokatzeko, 2015ean baino 1,4 p.p. beherago, alegia. **Aurtan, langabezia-tasak murrizten jarraitu du, 3H17an % 10,6ra iritsi arte.** Zifra horiek azken zortzi urteetako txikienak dira, baina alde handia dago 2008an Nafarroan batez beste zegoen % 6,8ko tasarekiko.**


Enpleguaren kalitateari dagokionez, **aldi baterako lanei dagokion tasa murriztu egin da, eta % 23tik behera kokatu da azken bi hiruhilekoetan (2H17 eta 3H17), 2015ean eta 2016an % 26ren inguruan ia konstante iraun ondoren** (ikusi 2.21. grafikoa). Hala ere, lehen mailako erronka adierazten du, eta zaildu egiten du enpleguaren eta giza kapitalaren kalitatea hobetzea.

**2.20 grafikoa** Afiliazioa eskualdez eskualde (1H08=100, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Gizarte Segurantzaren eta Nafarroako Estatistika Institutuan oinarrituta

**2.21 grafikoa** Aldi baterako enplegua (soldatepeko guztien %, UEEZ)




Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

## Ageriko produktibitateak hobetzen jarraitu du Nafarroako ekonomian

**Nafarroako ekonomiaren lan-faktorearen ageriko produktibitateak hazkunde positiboari eutsi dio egungo suspertze-fasean, lehenago (2001-2008) eta krisi-garaian (2009-2013) egin zuen moduan.** Hainbat sektorek, hala nola industriak eta energiak –bereziki garrantzitsuak Nafarroaren kasuan–, baina baita beste batzuk ere, eraikuntzaren sektoreak, adibidez, izandako jokaera onaren emaitza da bilakaera hori. Bestalde, merkataritzako, ostalaritzako eta garraioetako agregatuak produktibitatearen hazkunde positiboak erakutsi ditu krisialdiaren ondorenetik, maila nazionalen bezalaxe (ikusi 2.22 grafikoa).

**2.22 grafikoa** Lan-faktorearen itxurazko produktibitatea (balio erantsi gordina orduko; urteko batez bestekoa aldi bakoitzean)




Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

## Diru-sarreraren dinamismoak 2017ko egonkortasun-helburua sustatuko du

**2017ko abuztura arteko aurrekontuen gauzatzeak berretsi egin du autonomia-erkidegoko diru-sarrerak suspertu egin direla**, laneko errenten gaineko atxikipenen dinamismoak eta Gobernu zentralak araudietan onartutako aldaketetatik ondorioztatutako ordainketa zatikatuen handitzeak bultzatuta. Hala, foru-erkidegoaren diru-sarrerak % 7,9 u/u-ko erritmoan handitu ziren abuztura arte. Horrez gain, gastu autonomikoak hazkunde-tasa neurritsuak izan ditu (% 1,1 u/u) 2017ko abuztura arte. Nafarroako Gobernuaren kontsumo-gastuan behatutako hazkundea (bereziki, soldatapekoen ordainsariak eta tarteko kontsumoak ordaintzeko) interesetara eta beste herri-administrazio batzuetara egindako transferentzia korrontetara zuzendutako gastuaren murrizketaren bidez orekatu da. Horren ondorioz, Nafarroako Foru Erkidegoak eskualdeko BPGren % 0,4ko superabitarekin itxi du 2017ko abuztua, eta, beraz, erruz hobetu du 2016ko abuztura arte erregistratutako -% 0,4ko defizita (ikusi 2.23 grafikoa).

**2.23 grafikoa** Nafarroako Foru Erkidegoa: finantzaketarako gaitasuna/beharra (eskualdeko BPGren %)



(A) Aurrerapena.  
Iturria: BBVA Research, MINHAFPen oinarrituta

## Hazkundeak gorantz jarraituko du Nafarroan 2017an eta 2018an


**2017an, Nafarroako ekonomiak hazkunde indartsua izatea espero da, % 3,0koa, eta, aurreikuspenen arabera, hazkunde hori apur bat txikiagoa izango da 2018an, % 2,8koa, hain zuzen ere. 2017ko azken hiruhilekoan eta hurrengo urtean 8 mila lanpostu garbi sortzeko aukera ekarriko luke horrek, eta langabezia-tasa murriztu egingo litzateke (1,8 p.p.), 2018. urtearen amaieran % 8,8ra iritsi arte.** Eskualdearen dinamismo horren oinarrian, hainbat faktore leudeke: alde batetik, ekonomiaren beraren inertziak, datu ezagun berriekin batera, urtearen bigarren seiuhilekoan Nafarroako BPGk hiruhilekoko % 0,8 h/h-ko batez besteko aurrerapena erakusten ariko litzatekeela adierazten dute (lehenengoan izandakoaren antzekoa).

Beraz, barne-eskariak hazkundeari ekarpen positiboa egiten jarraituko du, besteak beste, kontsumoari eta etxebizitzaren ataleko inbertsioaren hobekuntzari esker. Bestetik, esportazioek hobera egitea espero da, ondasunek ere hobera egingo dute, automobilgintzaren sektorean eskaintza-faktoreak gaintitu ondoren, eta zerbitzuen atalak ere hobera egiten jarraituko du; horrez gain, eurogunearen hazkundeak eta, oro har, munduko eskariaren susperraldiak eskualdearen hazkundera sustatuko dute. Gainera, eskualdeko ekonomiak eremu horretarako funtsezkoak diren sektoreen ekoizpenean gertatutako hazkundera islatu du, hala nola industrian, eraikuntzan, merkataritzan, garraioan eta ostalaritzan, eta eskualdeak etorkizunean izan dezakeen hazkunderako euskarri garrantzitsua izan daiteke hori. Horrekin batera, 2016an defizit-helburua bete izanak gaur egun egin behar den ahalegin erlatiboa murriztu du, beste eskualde batzuekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, jardueraren bilakaerarekin bat datorren okupazioaren hobekuntza ez da aski oraindik: 2018. urte amaieran langabezia-tasa 2008. urte hasierakoa baino 3,5 p.p. handiagoa izango dela aurreikusten da. Susperraldi ekonomikoaren inguruko aurreikuspen horien arabera, biztanleko BPGk krisiaren aurreko maila berreskuratuko du aurten, euro konstanteetan.

## Gorabidean jarraituko dute esportazioek, eurogunearen hazkundeak eta hainbat eskaintza-faktorek bultzatuta

Nafarroako esportazioen eskaria suspertuko du bestalde, aurrera begira ere, ondasunen esparruan batik bat, **BPG globalaren aurrerapenean aurreikusitako egonkortasunak (% 3,5ekoa 2017an 2018an) nahiz eurogunearen goranzko berrikuspenak (% 2,2 eta % 1,8 artekoak, hurrenez hurren)**. Kezka eragin dezaketen egoerak direnak direla (brexita eta Estatu Batuetako kanpo-merkataritzako politikaren etorkizuna), ziurgabetasuna sortzen zuten beste egoera batzuk gertatzeko aukera murriztu egin da, adibidez, Europako politikaren ingurukoa, azken hauteskundeen ondoren. Landabengo automobilgintzako lantegia modelo berrira egokitzeko prozesuak Nafarroako esportazio-sektorearen kopuruak baldintzatu ditu uztaitetik, eta ekoizpena % 15 murriztu da aldi baterako. SUV14 modelo berria ekoizteko proiektua interes foralekotzat jotzeko adierazpenak inbertsio berriak ekarriko ditu, eta esportazioek ere gora egingo dute etorkizunean. Munduko eskariaren bultzadari etekin hobea ateratzeko aukera emango du barne-harreman estuagoak dituen kanpo-sektore konplexuago batek. Arlo horretan, Hausman-ek eta beste zenbaitek egindako azterketak erakutsi duenez (Hausmann et al, 2011), Nafarroako ondasunen esportazioek konplexutasun- eta konektibitate-erlazio sendoa erakusten dute, eta herrialdeko batezbestekoaren gainetik kokatzen ditu horrek, bai konplexutasunean bai konektibitatean<sup>15</sup> (ikusi 2.24 grafikoa). Kanpo-sektorea, beraz, euskarri sendoa izan daiteke eskualdeak etorkizunean izan dezakeen hazkundeari begira. Bestalde, diru-baldintza bigunek eta petrolioaren prezioa epe luzeko mailaren azpitik (upeleko 60 \$ inguru) mantentzeak Nafarroako ondasun eta zerbitzuen eskaria bultzatuko dute atzerrian.

**2.24 grafikoa** AAEE: Ondasunen esportazioaren konplexutasuna eta konektibitatea



Iturria: BBVA Research, honako lanean egileek erabilitako metodologiaren arabera: Hausmann, Hidalgo et al., in The atlas of economic complexity, Harvard Kennedy School (2011)

14: <http://www.noticiasdenavarra.com/2017/09/13/economia/declarado-como-inversion-de-interes-foral-el-proyecto-de-volkswagen-navarra-de-fabricacion-del-nuevo-modelo>

15: Ekonomiaren konplexutasuna gutxi ekoizten eta askok inportatzen dituzten ondasun jakin batzuk ekoizteko eta esportatzeko gaitasunarekin dago lotuta. Konektibitatea, berriz, nahiko hurbilekoak eta antzekoak diren eta erlazionatuta dauden ondasunak ekoizteko erraztasunarekin edo maiztasunarekin dago lotuta. Gehiago jakiteko, ikusi: The Atlas of Economic Complexity, Hausmann, Hidalgo et al, hemen: [http://atlas.cid.harvard.edu/media/atlas/pdf/HarvardMIT\\_AtlasOfEconomicComplexity\\_Part\\_1.pdf](http://atlas.cid.harvard.edu/media/atlas/pdf/HarvardMIT_AtlasOfEconomicComplexity_Part_1.pdf)

## Handitzen jarraituko du barne-eskariak, diru-politika progresiboki normaldu arren

**Europako Banku Zentralak (EBZ) oso baxu eusten die interes-tasei, baina konfiantza handiagoa erakusten du orain hazkundera hartzen ari den indarrean, eta lehenengo aldaketak abiarazi ditu diru-politikaren etorkizunari buruzko komunikazioan (*forward guidance*).** Zehazki, interes-tasen beheranzko joerari amaiera eman zion ekainean, eta normalizaziorako lehen urrats moduan ulertu zen hura. Urrian, aktiboak erosteko programaren murrizketaren xehetasunak iragarri zituen, eta 2018ko irailera arte luzatu zuen, gutxienez. Horrez gain, programa hori amaitu eta denbora pixka bat igaro arte interes-tasak igoko ez direla azpimarratu du EBZk, eta programa hori ez dela bat-batean amaituko ere esan du. Beraz, ez da espero erreferentzia-tasen lehenengo igoera 2019. urtearen erdialdea baino lehen gertatzea. Funtsezkoa izango da aparteko neurriak argi eta garbi adieraztea eta irteerako estrategia ordenatua eta pixkanakakoa hartzea, normalizazio-prozesuari susperraldi ekonomikoa arriskuan jarri gabe eta finantza-merkatuetako tentsioak saihestuz ekiteko, nahiko zalantza agertu baitituzte finantza-merkatuek normalizazioa berehala gertatzeko aukeraren aurrean. Interes-tasa txikiak eta diru-politika hedakorra lagungarri dira familien eta enpresen gastuaren hazkunderako, eta, horrez gain, defizit publikoa murrizteko prozesua errazten dute. Zorpetze-maila handiko gizarteetan (halaxe da Espainiako gizartea), oso garrantzitsua da hori, nahiz eta gehiegizko zorpetzea murrizteko ahalegin handia egin den azken urteotan.

**Bestalde, inbertsioen hazkundera sustatzen jarraituko da, azken urteetan abiarazitako erreformen bidez nahiz krisialdiaren aurretik eta ondoren metatutako desorekak murrizteko ahaleginen bidez.** Zehazki, lehiakortasunean eta kanpo- nahiz barne-eskarian izan diren hobekuntzek ekipamendu-ondasunen erosketa suspertuko dutela espero da. Gainera, hainbat faktorek etxebizitzaren arloko inbertsioaren suspertzea bultzatu beharko lukete Nafarroan. Hala, etxebizitza berrien salmenta eta, aldi behin, eraikuntza areagotzea sustatzen dute familien eta enpresen zorpetzea txikiagoak, finantzaketa-kostuaren murrizketak, maileguak eskuratzeko erraztasun handiagoak, enpleguaren hobekuntzak eta prezioen doitzeak. Hala ere, hazkundera ez da joera demografiko eta kanpo-eskari hobekak nahiz immigrazio handiagoa dituzten beste merkatu batzuetan bezainbestekoa izango.

## Aukera handiak 2017ko egonkortasun-helburua betetzeko

Agertoki honetan, diru-sarrerak urte hasieran aurreikusitakoak baino hobexegoak dira. Halaber, gastuaren doitze handiagoa egin da. Horren ondorioz, **Nafarroaren defizita, 2017. urte amaieran, egonkortasun-helburuaren eskualdeko BPGren -% 0,6 azpikoa izatea espero da.**


## 8 mila enplegu inguru sortuko dira 2017ko azken seihilekotik 2018 amaiera bitartean

Datozen bi urteotan eskualdeko BPGn hobera egingo dela aurreikustea lagungarri gertatu da lan-merkatuaren bilakaera positiboa bultzatzeko. **Horrela, probabilitate gehieneko agertokian, 8 mila lanpostu inguru sortuko dira 3H17tik 2018. urte amaiera bitartean.** Hala ere, BAIren datuen arabera, 2008ko batez besteko mailaz azpitik kokatuko da enplegua, 4,6 p.p. beherago. Horrekin batera, **% 8,8raino murriztuko da langabezia-tasa 2018. urtearen amaieran** (urteko batezbestekoa % 9koa izango da), eta 2008. urteko mailan baino 3,2 p.p. gorago geldituko da (ikusi 2.25 grafikoa).




**Nafarroak krisialdiaren aurreko biztanleko BPG berreskuratuko du 2017an**, iaz maila absolutua berreskuratutik ondoren. BPGren hazkundera handiagoa izango da estatuko batezbestekoa baino, eta bilakaera demografikoa, berriz, estatukoaren antzekoa. Hala ere, beste biurteko bat beharko luke gaur egungo hazkunde-eritmoan enpleguaren maila berreskuratzeko (ikus 2.26 grafikoa)<sup>16</sup>.

**2.25 grafikoa** Nafarroa: lanean ari direnak (BAI) eta langabezia-tasa (UEEZ)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

**2.26 grafikoa** BPG, enplegua, langabezia-tasa, biztanleria eta BPG biztanleko. 2016ko maila eta aldaketa 2017-2018 biurtekoan (Krisi aurreko maila =100)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

## Agertokiak baditu bere arriskuak


**Kanpo-sektorearen eta inbertsioaren jokabide hobea kontuan hartuta 2017ko eta 2018ko aurreikuspenak positiboak badira ere, hor jarraitzen dute kanpo- eta barne-arriskuek. Kanpora begira**, ziurgabetasuna nabari da, merkataritza globalaren susperraldi hasiberria mugatuko duten neurri protekzionistek har dezaketen indarraren inguruan. Ildo horretan, oraindik ez dakigu zer irismen izango duten Estatu Batuetako kanpo-merkataritzaren politikan

<sup>16</sup>: 2017-2018 biurtekorako aurreikusitako enpleguaren hazkunde-eritmoari eusten bazaio, enplegu-maila hori 2021ean lortuko litzateke.

egindako aldaketek, ez eta zer ekarriko duten Lisboako Tratatuaren 50. artikuluan oinarrituta Erresuma Batua Europar Batasunetik irteteko egiten ari diren negoziazioen bilakaerak eta emaitzek edo Italiako hauteskondeek ere.


Besteak beste, Erresuma Batura egiten diren esportazioak murriztea eragin dezake zuzenean brexitek, britainiar familien errentak behera egitearen, merkataritzari muga gehiago jartzearen eta liberaren balio-galeraren ondorioz. Nafarroaren kasuan, eskualdeak Erresuma Batuarekin duen lotura elikaduraren sektorean kontzentratzen da nagusiki, baina lotura horrek eragin handia du baita ere automobilgintzan eta semimanufaktura, bai eta, hein txikiagoan bada ere, ekipamendu-ondasunetan ere. Gainera, sor daitezkeen beste ondorio batzuek eragin txikiagoa izango dutela uste da, hala nola turisten etorriaren gaineko inpaktuak, immigrazioak edo bigarren bizitexarearen eskariak. Dena den, kontuan hartu behar da zeharkako bide gisa Nafarroako esportazioen helmuga diren Europar Batasuneko beste herrialde batzuek edo Espainiako beste eskualde batzuek izan dezaketen moteltzea ere. Horregatik guztiagatik, merkatu britainiarrera ondasunak batez beste Espainiaren antzeko proportzioan esportatuz eta **BBVA Research-en balioespenen arabera, BPG britainiarraren erorikoen aurrean Nafarroako BPGk duen elastikotasuna Espainiako eskualdeen batezbestekoa baino zertxobait handiagoa da (ikusi 2.27 grafikoa).**

**2.27 grafikoa** Brexitaren eragina AAE Eetan: (p.p. urteko hazkundearengan, britainiar BPGaren % 1,5eko erorikoen aurrean)



\* Balear Uharteak eta Kanariak erregresio-zuzenetik kanpo utzi dira. Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta (CRE)

**2.28 grafikoa** Petrolio gordinaren prezioaren % 10eko gorakadak 2018ko BPGren urteko hazkundearengan duen eragina (p.p.)




Iturria: BBVA Research

Horrez gain, azken aldiaren petrolioaren prezioak gora egin arren, eskaintzarekin lotutako faktoreen ondorioz nagusiki, batez besteko prezioa epe luzeko orekaren azpitik dago oraindik (60\$/upel). Garrantzitsua da hori oso erregaiaren inportatzaile den ekonomia baten kasuan, Espainian, adibidez. Aurrera begira, petrolioaren prezioan izan daitezkeen gorakadek presio handiagoa ekar diezaiokete familien erosteko ahalmenari, edo enpresen marjinetan murrizketak eragin ditzakete, eta barne-erostaren susperraldia arriskuan jar lezake horrek. Horrelako arriskuen ondorioz autonomia-erkidegoei begira aurreikusten diren eraginak garraioen sektorerako zuzendutako gastuaren ehunekoaren arabera izango dira (Nafarroan Estatuan baino txikiagoak dira), bai eta produkzio-jardueran energia-mota horrek duen erabileraren arabera ere. Baldintza horietan oinarrituta, **aurrean daitezke petrolio gordinaren**

prezioan % 10eko igoerak 0,4 p.p. inguruko eragina izango lukeela urtean Nafarroan, estatuko batez bestekoa baino hamarren bat gehiago (ikusi 2.28 grafikoa).


Bestalde, Italian egingo diren hauteskundeek edo Alemanian gobernuaren eratzeko zailtasunek ere ziurgabetasuna dakarte kanpora begira, nahiz eta tentsio geopolitikoak hein batean murriztu egin diren, Frantziako, Austriako eta Alemaniako hauteskundearen emaitzen ondoren. Kontuan hartu beharreko beste arrisku bat EBZk diru-pizgarriak kendu izana tasen kurban nola eta noiz islatuko den izango da. Zorpetutako ekonomia batean, hala nola Espainian, finantzaketa-kostuen gorakadak murriztu egin ditzakete kontsumorako eta inbertsiorako baliabideak. Alderdi zehatz horretan, Nafarroan, administrazio publikoei eta beste sektore egoiliar (BSE) batzuei zuzendutako kreditua, eskualdeko BPGren proportzio gisa, murriztu egin zen 2H17an, % 83,5eraino iritsi arte (% 134,5era iritsi zen 2009an). Zehazki, kredituaren eta gordailuen (BSE) arteko saldoa nulua da ia eskualdean. **Horregatik, diru-baldintza horietan izan daitezkeen aldaketekiko lotura txikienetarikoa izango luketen autonomia-erkidegoetako bat litzateke Nafarroa (ikusi 2.29 grafikoa).**

**2.29 grafikoa** Beste sektore egoiliar batzuen kreditu eta gordailuen arteko saldoa (BPGren gaineko %; 2H17)



Iturria: BBVA Research Espainiako Bankuan eta INEn oinarrituta

**2.30 grafikoa** Urteko soldata baliokidea gutxieneko soldataren azpitik duten soldatepekoak (soldatepeko guztien %)



Iturria: BBVA Research, Bizitza Laboralaren Lagin Jarraituaren arabera (Gizarte Segurantza)

Bestalde, oraingoz lehengaien prezioen edo lanbide arteko gutxieneko soldataren gorakadaren ondorioz inflazioan bigarren itzuliko efekturik nabarmendu ez den arren, ezin dugu baztertu etorkizunean gertatuko ez direnik. Eta, hala gertatuz gero, eragin negatiboa izan dezakete enpresen lehiakortasunean eta familien erosteko ahalmenean, eta eskariaren hazkundera eta lanpostuen sorrera motelduko luke horrek guztiak.

**Horri lotuta, 2017an lanbide arteko gutxieneko soldatak % 8 igotzeak eragin mugatua izango du jardueran eta lanpostuetan, estaldura eta garrantzi txikia baitu horrek enpresaren lan-kostuetan.** Dena den, ordainsari errealetako hazkundera orokortzen badira, baina aldi berean ez badira egiten hobekuntza proportzionalak produktibitatean, eragin negatiboak ekar diezazkioke horrek enpleguaren sorkuntzari. Aurrekoa ez gertatuta ere, lanbide arteko gutxieneko soldata igotzeak enplegu-aukerak murrizt ditzake zenbait kolektibotan, prestakuntza txikiko

langileen artean, esaterako, edo gazteen artean (esperientziarik ez) eta aldi baterako kontratua dutenen artean. Gainera, urteko soldata lanbide arteko gutxieneko soldataren baliokidea edo hortik beherakoa duten soldatapekoen Nafarroako ehunekoa estatuko batezbestekoa baino txikiagoa da (ikusi 2.27 grafikoa), eta eragin txikiagoa dute, halaber, aldi baterako lanek (ikusi 2.22 grafikoa). Beraz, gerta daitezkeen aipaturako eragin horiek egiaz gertatzen badira, antzekoak izango lirateke eskualdean eta estatuan, bai maila agregatuan eta bai kolektibo horietan<sup>17</sup>. Hala ere, eskualdeko lan-merkatuaren baldintzak hobek dira esparru batzuetan eta okerragoak beste batzuetan okerrak dauden kolektiboen kasuan eta Espainiarekin alderatuta. Zehazki, luzaroko langabeen proportzioa txikiagoa da Nafarroan: langabeen % 30,9k bi urte edo gehiago zeraman egoera horretan, azken urteko estatuko batezbestekoa baino 8.8 p.p txikiagoa. Unibertsitateko gradudun batek ikasketak amaitu ondorengo lehen hiru hilabeteetan lana aurkitzeko probabilitatea % 33,9koa zen, Espainian baino 9,3 p.p. handiagoa. Aitzitik, ikasleen kasuan, unibertsitateko gradudun batek bere lehen lanpostuan kontratu mugagabea izateko zuen probabilitatea % 20,8koa zen, estatuko batez bestekoa baino 5,9 p.p. txikiagoa, laneratzeari buruz INEk emandako azken datuen arabera (2014)<sup>18</sup>.

**Hala ere, azken hilabeteotan Katalunian gertatutakoak ziurgabetasuna sortzen du agertokian, azken Observatorio Regionalean adierazitakoaren ildotik<sup>19</sup>.** Alde batetik, abuztuan Katalunian gertatutako atentatu terroristek turista atzerritarren bisitak baldintza ditzakete Espainia osoan. Gertaera horiek Bartzelonara zuzendu zuten guztion arreta, lehenago beste hiri batzuetan, Parisen, adibidez, bizi izandako antzeko egoeretan izandako intentsitate, iraupen eta tonu berean<sup>20</sup>. Esperientzia horietan oinarrituta, bisitari atzerritarrek Katalunian egingo litzatekeen ostatu-gauen gaineko eragin negatiboa % 1,5etik % 2ra bitartekoa izango litzateke atentatuak gertatu ondorengo urtean. Espainiako enpleguaren bilakaeran eragin negatiboa izan dezake horrek, baita beste eskualde batzuetako sektore turistikoetan ondorioak izan ere.

**Beste alde batetik, zenbait finantza-aldagaien aldakortasuna handitu da, Kataluniako inguru politikoarekin lotuta, nagusiki.** Ildo beretik, politika ekonomikoaren gaineko ziurgabetasuna neurtzen duten adierazleek 2016. urtean behatutako mailak gainditu dituzte. Beraz, tentsio handiago horrek etorkizunean kontsumitzaileen eta enpresen gastu-erabakietan eragin negatiboa izateko arriskua ere hor dago. Estimazioak konplexuak dira, behatutako *shock*aren askotariko izaera kontuan hartuta, eta eragin-tarte zabala hartzen dute: laugarren hiruhilekoan politika ekonomikoaren ziurgabetasun-mailari eusten baldin bazaio, Espainiako BPGren hazkundea 2018an<sup>21</sup>, tentsiorik gabeko agertokian behatuko litzatekeena baino txikiagoa izango litzatekeela aurreikusi da (hamarren batetik bost hamarrena), eta % 2,5 ingurukoa litzateke, ziurrenik. Hala ere, urrian behatutako ziurgabetasuna 2018. urte amaiera arte luzatuko balitz, jardueraren gaineko eragina BPGren % 0,2tik % 1,1era artekoa izan liteke<sup>22</sup>. Alde horretatik, gainerako eskualdeetarako

17: Ikusi, gai honetaz: Observatorio BBVA Research, *Repercusiones del aumento del salario mínimo en España*, hemen: <https://www.bbva.com/publicaciones/repercusiones-del-aumento-del-salario-minimo-en-espana/>

18: Ikusi laneratzeari buruzko INEren inkesta, hemen:

[http://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica\\_C&cid=1254736176991&menu=ultiDatos&idp=1254735976597](http://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176991&menu=ultiDatos&idp=1254735976597)

19: Ikusi Observatorio Regional, 4H17, hemen: <https://www.bbva.com/wp-content/uploads/2017/11/Observatorio-Regional-4T17.pdf>

20: Ezegonkortasun-indizeak GDELT erabiliz egiten dira; Big Data eskalako datu-basea da GDELT, eta nazio-mailako, nazioarteko, eskualdeko eta tokiko prentsako, irratiko eta telebistako informazioa eta sareko albisteak jasotzen ditu 65 hizkuntzatan baino gehiagotan; 1979. urteik gaur egun arte informazio geoerreferentziatu ugari ematen du 15 minututik behin.

Indize horiek bi dimentsio biltzen dituzte, gai baten "garrantzia" edo "eragina" ebaluatzeko: gai jakin batek zer oihartzun mediatiko izan duen eta gai hori albisteetan zer sentimendu edo tonurekin jaso den. Batez besteko tonua -100etik (guztiz negatiboa) +100era doa (guztiz positiboa). Ohiko balioak -10 eta +10 artekoak dira, eta 0 joera neutrala litzateke. Puntuazio hori gertakarien "testuingurua" iragazteko metodo gisa erabili daiteke, gertakari baten garrantziaren neurri sotila lortzeko eta horren "eragina" neurtzeko.

21: Xehetasun gehiago hemen: Situación España, 2017ko laugarren hiruhilekoa, hemen: [https://www.bbva.com/wp-content/uploads/2017/11/SIT\\_ESPANA\\_4T17.pdf](https://www.bbva.com/wp-content/uploads/2017/11/SIT_ESPANA_4T17.pdf)


22: Politika ekonomikoaren ziurgabetasunak Espainiako ekonomian dituen ondorioak estimatzeari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi Situación España aldizkari (2016ko lehen hiruhilekoa) 1. errekoadroa, hemen: <https://goo.gl/TksUX0>

kutsatze-efektua heterogeneoa izango da, transmisio-kanalen eraginaren arabera, eta ziurgabetasuna handia da arlo horretan: Espainiaren pertzepzioa helmuga turistiko eta inbertsioen xede gisa, eta eskualde bakoitzaren eta Kataluniaren arteko merkataritza-loturak, gastuan eskualdeen artean gerta daitekeen desbideratzearekin batera.

**Aurrera begira, agenda berritzaile handizale batean aurrera egiteko zailtasunak eragin dezake kosturik handiena.** Hala ere, Nafarroako ekonomiak oraindik berekin dituen desorekak murrizten jarraitu beharrak nahitaezkoa egiten du produktibitatearen hazkundera indartuko duten erreforma berriak aintzat hartzea, aldi berean enpleguari eutsiz eta munduarekiko gehiegizko zorpetzea taxuz zuzenduz. Interes berezia hartuko dute zeregin horretan **lan-merkatua hobetzera** (langabezia-tasa murriztea, gazteen artean batik bat, aldi bateko lanen tasa murriztea edota jarduera-tasa handitzea), **giza kapitala** suspertzera eta teknologia berriak geureganatzera zuzentzen diren neurriek, lanaren batez besteko produktibitatea indartzen jarraitzeko aukera emango baitu horrek.

2.31 grafikoak Nafarroako produktibitateak eta biztanleko BPGk 2010-2015 bosturtekoan izandako bilakaera Europako erreferentziazko 30 eskualdeek izandakoarekin (*peers*) konparatzen du, horien antz handia baitu egiturazko irizpideei dagokionez<sup>23</sup>. Nafarroak bilakaera positiboa izan du bai produktibitatean bai biztanleko BPGn, eta, beraz, Espainiako gainerako eskualdeen gainetik dago, EA Eren gainetik izan ezik. Produktibitatearen hazkundera Frantziako eta Italiako hainbat eskualdetakoa baino handiagoa da, hala nola Trento, Picardie edo Basse Normandie eskualdeetako baino handiagoa. Hala ere, biztanleko BPGren aldaketan, eskualde horiek eta atzerriko *peers* gehienak (Umbriak izan ezik), Nafarroaren gainetik daude. Aztertutako aldian, eskualde gehienek Nafarroak baino bilakaera hobea izan dute aztertutako bi adierazleetan: Austriako eskualdeak, Danimarkako Syddanmark eskualdeak eta Frantziako eta Italiako beste eskualde batzuk, Centre, Bourgogne edo Bolzano eskualdeek, adibidez.

**2.31 grafikoa** Produktibitate eta BPG per capitaren bilakaera alderagarri diren Europako eskualdeetan. 2010-2015



Iturria: BBVA Research, Europar Batzordean eta Eurostaten oinarrituta

23: EBk S3ren (Smart Specialization Platform) esparruan garatutako *benchmarks*ak hautatzeko metodologiari dagokionez, ikusi: <http://s3platform.jrc.ec.europa.eu/regional-benchmarking>

**2.4 taula** BPGren hazkundera AA.EE.

	2015	2016	2017	2018
Andaluzia	2,8	2,8	3,2	2,5
Aragoi	2,4	2,7	3,1	2,4
Asturias	2,7	1,9	2,4	2,3
Balearrak	2,3	3,8	4,0	3,0
Kanariak	2,0	3,5	3,6	2,9
Kantabria	2,6	2,3	2,5	2,4
Gaztela eta Leon	2,5	3,3	2,6	2,6
Gaztela Mantxa	2,8	3,1	3,3	2,7
Katalunia	3,7	3,5	3,0	2,1
Extremadura	2,1	2,0	2,4	2,4
Galizia	3,2	3,4	2,8	2,6
Madril	3,6	3,7	3,4	2,7
Murtzia	3,7	3,1	3,4	2,5
Nafarroa	3,1	2,9	3,0	2,8
EAE	3,6	2,8	2,7	2,9
Errioxa	2,7	1,5	2,9	2,5
Valentziar K.	3,6	3,3	3,2	2,4
Spainia	3,2	3,2	3,1	2,5

Iturria: BBVA Research INEn oinarrituta

**2.5 taula** Enpleguaren hazkundera AA.EE. BAiren (EPA) arabera (urteko batez besteko aldaketa)

	2015	2016	2017	2018
Andaluzia	5,1	2,4	4,1	3,3
Aragoi	4,2	2,3	2,7	1,7
Asturias	0,0	2,6	3,2	1,9
Balearrak	5,7	4,2	1,7	2,6
Kanariak	6,4	3,4	3,1	3,4
Kantabria	1,1	3,0	1,4	2,0
Gaztela eta Leon	2,0	2,8	1,2	1,3
Gaztela Mantxa	2,3	3,2	3,9	2,1
Katalunia	1,6	3,4	2,8	2,3
Extremadura	0,8	1,8	0,0	1,0
Galizia	1,9	2,3	1,4	1,2
Madril	3,6	0,8	2,9	2,6
Murtzia	0,0	6,1	3,6	2,3
Nafarroa	0,7	1,2	4,5	1,6
EAE	1,4	2,8	0,0	0,9
Errioxa	1,7	1,7	1,8	1,0
Valentziar K.	4,0	3,1	3,3	2,9
Spainia	3,0	2,7	2,8	2,4

Iturria: BBVA Research INEn oinarrituta



**2.6 taula** Langabezia tasa AA.EE. Epealdi amaiera.

	<b>2015</b>	<b>2016</b>	<b>2017</b>	<b>2018</b>
<b>Andaluzia</b>	29,8	28,3	25,1	23,3
<b>Aragoi</b>	14,6	13,5	10,0	8,4
<b>Asturias</b>	20,3	14,6	12,0	11,3
<b>Balearrak</b>	17,0	13,8	11,7	10,6
<b>Kanariak</b>	26,8	24,9	22,4	20,9
<b>Kantabria</b>	17,7	12,9	11,6	10,2
<b>Gaztela eta Leon</b>	17,6	14,8	12,9	11,9
<b>Gaztela Mantxa</b>	25,0	22,1	18,8	17,4
<b>Katalunia</b>	17,7	14,9	12,5	11,1
<b>Extremadura</b>	28,1	28,3	25,8	25,0
<b>Galizia</b>	17,7	16,3	15,2	14,5
<b>Madril</b>	16,5	14,6	12,3	10,6
<b>Murtzia</b>	23,5	18,6	16,7	15,8
<b>Nafarroa</b>	13,5	10,0	9,2	8,8
<b>EAE</b>	12,9	12,3	12,2	11,3
<b>Errioxa</b>	14,0	10,9	9,5	8,9
<b>Valentziar K.</b>	21,5	19,2	16,4	15,1
<b>Espania</b>	20,9	18,6	16,2	14,9

Iturria: BBVA Research INEn oinarrituta

## Nafarroako egoera ekonomikoaren azterketa, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren bidez. 2017ko hirugarren hiruhilekoa<sup>24</sup>

**Nafarroako jarduera ekonomikoari buruzko Inkestaren (EAE-BBVA) emaitzak, 2017ko hirugarren hiruhilekoari dagozkionak, bat datoz hazkunde indartsua izan duen Nafarroako ekonomiarekin, eta 2017ko laugarren hiruhilekorako aurreikuspenak ere baikorrak dira<sup>25</sup>.** Gauza bera gertatu da ondoz ondoko lau hiruhilekotan. Dena dela, emaitzak ez dira 2015eko lehen hiru hiruhilekoetan lortutakoak bezain positiboak, maximo historikoak lortu baitziren orduan.

**Hiruhileko honetako jarduerari buruzko ikuspegian, egonkortasuna da nagusi,** inkestari erantzun dioten hamar pertsonatik zazpiren arabera. Inkestari erantzun diotenen laurden batek, gutxienez, jarduera handiagoa hautematen du bere inguruan, eta, beraz, erantzunen saldo garbia<sup>26</sup> positiboa da, eta azken bi urteetako handiena (ikusirik R1.1 grafikoa). Emaitza horiek aurreko hiruhilekokoak baino 10 p.p.

24: 2010eko bigarren hiruhilekotik, BBVA Inkesta hiru hilean behin egiten da, BBVAko eskualdeko bulegoen sareko enplegatuen artean. Inkestari buruzko zehaztasun gehiago nahi izanez gero, ikusi: *Situación España*, Recuadro 1, Encuesta BBVA de Actividad Económica. Una herramienta de seguimiento temprano del pulso de la economía. Situación España, 2º trimestre de 2014, hemen; <https://www.bbvarresearch.com/public-compuesta/situacion-espana/>

25: Inkestaren bolada hau 2017ko irailaren bigarren hamabostaldian egin zen.

26: Muturreko erantzunen saldo garbia lortzeko, jarduera ekonomikoak gorantz egin zuela uste duten erabiltzaileen erantzunen ehunekoari beherantz egin zuela uste dutenen ehunekoa kentzen zaio.

handiagoak dira, eta duela urtebetekoak baino 20 p.p. handiagoak, orduan baldintzatzaile geopolitikoak baitzeuden: Espainiako hauteskunde-deialdi bikoitza, brexitaren garaipena erreferendumean edo Trumpen hautaketa AEBn, petrolioaren prezioaren igoerarekin batera. Hala ere, jarduera ekonomikoak gorantz jarraitu zuen eskualdean.

**Ikuspegia ez da asko aldatu 2017ko laugarren hiruhilekoan: egonkortasuna da nagusi, eta inkestari erantzun dioten hamarretatik hiruk ia hazkundera aurreikusi dute.** Itxaropen horiek, hala ere, ez dira aurreko bi hiruhilekoetan bezain positiboak<sup>27</sup>, orduan erantzunen saldo garbia +25 p.p.-koa izan baitzen (ikusirik R1.1 koadroa), baina ondoz ondoko bost hiruhileko positibo izan dira. Gainera, saldo garbi hori duela urtebete erregistratutakoa baino 18 p.p. handiagoa da.

**Bat dator hori BBVA Research-ek egindako aurreikuspenarekin:** eskualdeak iaz izan zuen **hazkundera eutsiko dio** aurten ere; Nafarroako BPG % 2,9 handitu zen iaz.

**Adierazle partzial guztiek emaitza positiboak erakusten dituzte erantzunen saldo garbietan,** 2H17an gertatu bezala, orduko emaitzak antzekoak izan baitziren. Turismoak izan du erantzunen saldo garbi handiena (+46 p.p.), eta, horrez gain, emaitza onenak eskarien diru-zorroak (33


27: Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestan jasotako datuak gordinak dira, eta, beraz, nolabaiteko urtarokotasuna isla dezakete. Segida historiko luzerik ez dagoenez, ezinezkoa da urtarokotasuna eta egutegi-eragina zuzentzea.

**1 errekoadroa**

p.p.) eta zerbitzuetako eta etxebizitza berrietako inbertsioak (21 p.p.) izan dituzte. Industriako ekoizpenaren eta inbertsioaren kasua da. Enpleguari buruzko ikuspegia, aldiz, apalagoa da, eta industriaren sektorearen egoera (+21 p.p.) zerbitzuen sektorearena eta eraikuntzarena baino hobexeagoa da kasu honetan. Hiruhilekoen arteko datuetan, enpleguari buruzko adierazleek izan dute bilakaera okerrena. Zehazki, zerbitzuen sektoreko enpleguak, 24 p.p. murriztu baita saldo garbi positiboa. Esportazioei buruzko ikuspegia ere positiboa da oraindik, nahiz eta saldo garbia ez den 10 p.p.-ra iristen (ikus R.1.2 grafikoa).


Laburbilduz, **Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren emaitzek berretsi egin dute Nafarroako ekonomiak hazkunde positibo egonkorrari eusten diola.** Seinaleak positiboak dira industriaren eta turismoaren sektoreetan, eta, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta hainbat zehaztasun egin behar diren arren, baita zerbitzuen eta esportazioen sektoreetan ere.

**E.1.1 grafikoa** Nafarroa: jarduera ekonomikoaren bilakaera eta espektatibak. Muturreko erantzunen saldoak (%)



Iturria: BBVA

**E.1.2 grafikoa** Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta Nafarroan. Erantzunen saldoak (%). Aukeratutako aldagaiak



Iturria: BBVA

**E.1.1 koadroa** Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta Nafarroan. Emaidza orokorrak (%)

	2017ko 3. hiruhilekoa				2017ko 2. hiruhilekoa				2016ko 3. hiruhilekoa			
	Handitu	Egonkor	Txikitu	Saldoa*	Handitu	Egonkor	Txikitu	Saldoa*	Handitu	Egonkor	Txikitu	Saldoa*
<b>Jarduera ekonomikoa</b>	<b>25</b>	<b>71</b>	<b>4</b>	<b>21</b>	<b>26</b>	<b>59</b>	<b>15</b>	<b>11</b>	<b>16</b>	<b>67</b>	<b>17</b>	<b>-1</b>
<b>Hurrengo hiruhilekorako aurreikuspena</b>	<b>29</b>	<b>67</b>	<b>4</b>	<b>25</b>	<b>48</b>	<b>48</b>	<b>4</b>	<b>44</b>	<b>24</b>	<b>60</b>	<b>17</b>	<b>7</b>
Industria-ekoizpena	29	67	4	25	30	63	7	22	16	71	13	2
Eskari-zorroa	33	67	0	33	33	56	11	22	13	68	18	-5
Stock mailak	17	83	0	17	19	81	0	19	2	86	12	-10
Lehen sektoreko inbertsioa	17	79	4	13	17	78	4	13	5	86	10	-5
Industriako inbertsioa	25	71	4	21	29	67	4	25	8	77	15	-7
Zerbitzuetako inbertsioa	21	75	4	17	30	59	11	19	24	60	16	8
Eraikuntza berriak	29	63	8	21	37	59	4	33	17	62	21	-5
Industriako enplegua	21	79	0	21	30	63	7	22	13	73	13	0
Zerbitzuetako enplegua	25	67	8	17	44	52	4	41	31	39	30	1
Eraikuntzako enplegua	17	79	4	13	22	74	4	19	9	65	26	-17
Prezioak	17	83	0	17	15	85	0	15	3	86	11	-8
Salmentak	21	67	13	8	33	56	11	22	11	71	17	-6
Turismoa	46	54	0	46	52	48	0	52	60	33	6	54
Esportazioak	17	75	8	8	22	78	0	22	12	70	18	-6

(\*) Muturreko erantzunen saldoa.  
Iturria: BBVA

### 3. Autonomia-erkidegoen gastuen eta diru-sarrereren bilakaera, 2003tik 2016ra

Ángel de la Fuente<sup>28</sup> FEDEA eta Análisi Ekonomikorako Institutua (CSIC). 2017ko urria

#### 1. Sarrera

**Autonomia-erkidegoek (AAEE) 2003tik 2016ra izandako diru-sarrereren eta gastuen bilakaera aztertuko dugu artikulu honetan.** 2003. urtea hartzen du abiapuntutzat azterketa honek, urte horretan, lehenengo aldiz, osasun-arloaren kudeaketaren ardura autonomia-erkidego guztien esku egon baitzen ekitaldi osoan. 2002. urtetik, ez da eskualdaketara garrantzitsurik gertatu hornidura ekonomikoaren atalean; beraz, serieak autonomia-erkidego guztien gastu-eskumenak gehienez konstanteak –baina desberdinak AAEE bakoitzaren kasuan– izan diren aldi bati dagozkio. Hemen erabili ditugun datuak IGAEk (2017) egiten dituen eskualde-kontuetan oinarrituta daude, eta, zehazki, 2000. urtetik aurrera autonomia-erkidegoen arabera bereizitako serieetan, erakunde horrek duela gutxi argitaratu dituenetan.

**Autonomia-erkidegoen diru-sarrera (baliabideak) eta gastu (enpleguak) ez-finantzarioei buruzko informazioa eskaintzen du IGAEk, Kontabilitate Nazionaleko (KN) irizpideen arabera kalkulatuta. Hemen interesatzen zaiguna kontuan hartuta, Kontabilitate Nazionalean erabiltzen den kontu-sailen multzoa aldatzea komeni da,** autonomia-erkidegoetako finantziario-sistemak eskualdeko diru-sarrereren eta gastuen gain duen eragina modu intuitiboagoan jaso ahal izateko. Arazo hori lotuta dago beste herri-administrazio batzuei egiten zaizkien transferentzien trataerarekin; autonomia-erkidegoen kasuan, Estatuari egiten zaizkion transferentziak dira nagusi atal horretan, finantziario autonomikoaren sistemarekin erlazionatutako kontzeptuengatik egindakoak, hain zuzen (hainbat autonomia-erkidegotako Berme Transferentziaren edo Nahikotasun Funtzaren saldo negatiboak, adibidez). Transferentzia horiek eskualde-administrazioek erabilgarri dituzten diru-sarrera garbiak murrizten dituzten arren, AAEEen "gastuetan" txertatzen dira Kontabilitate Nazionalean, eta, beraz, autonomia-erkidegoetako "diru-sarrera gordinak" artifizialki puztuta gelditzen dira. Arazo hori saihesteko, aurrerantzean, beste herri-administrazio batzuei egiten zaizkien transferentziak (korronteak eta kapitalarenak) gastuen ataletik diru-sarrereren atalera aldatuko dira, eta beste herri-administrazio batzuetatik jasotako transferentzietatik (korronteak eta kapitalarenak) murriztuko dira atal horretan; horrekin batera, beste herri-administrazio batzuek egindako transferentziei dagozkien diru-sarrera garbien kontu-sail berri bat sortuko da, eta AAEEen diru-sarrereren atalean txertatuko da.

**Horrela, doitutako diru-sarrera eta gastu ez-finantzarioen agregatu berriak lortuko dira, eta horiek erabiliko ditugu azterlan honetan.** Diru-sarrera doituek beste herri-administrazio batzuei egindako edo haiek egindako transferentzien ondoriozko diru-sarrera garbiak hartzen dituzte barnean, eta gastu doituek garbiak dira, beste herri-


28: Pep Ruizek egindako aipamen eta iradokizunak eskertzen ditut.

administrazio batzuetara egindako transferentziak kontuan izan gabe. Hemendik aurrera, biztanleko gastuak eta diru-sarrerak kontuan hartuta egin dugu lanketa, 2010eko prezio konstanteetan neurtuta (BPG nazionalaren deflatorea erabili da).

## 2. Autonomia-erkidegoen bilakaera 2003. urtetik


**3.1 grafikoak autonomia-erkidegoen multzoaren aurrekontu-saldoaren bilakaera erakusten du, 2003. urtetik 2016. urtera. Aztertutako aldiaren lehenengo urteak** hedapen ekonomiko luzearen azken zatiari dagozkie, eta autonomia-erkidegoak **aurrekontu-orekatik hurbil** daude. **2008an, krisia iritsi zenean, autonomia-erkidegoetako aurrekontu-saldoak oso azkar murriztu ziren**, eta biztanleko 1.165 euroko (2010ekoa) defizit maximora iritsi ziren 2011n. Urte horretatik aurrera, gauzak hobera egiten hasi ziren, erritmo beherakorrean eta zenbait gorabeherarekin izan arren, eta, 2016an, biztanleko 195 euroko defizita izan zen .

**3.1 grafikoa** Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa; euro biztanleko, 2010eko prezio konstanteetan; autonomia-erkidegoen multzoa



Iturria: BBVA Research

**3.2 grafikoa** Doitutako diru-sarrera eta gastu ez-finantzarioak; euro biztanleko, 2010eko prezio konstanteetan; autonomia-erkidegoen multzoa



Iturria: BBVA Research


Interesgarria da zehaztasunez aztertzea autonomia-erkidegoetako aurrekontu-saldoen atzean dauden gastuen eta diru-sarreraren bideak. 3.2 grafikoak autonomia-erkidegoetako doitu gabeko diru-sarrera eta gastu ez-finantzarioen bilakaera laburtzen du; 2010eko eurotan eta biztanleko neurtu dira. **Grafikoan ikus daitekeen portaera-ereduak ondo bereizitako hainbat fase erakusten ditu.** 2003tik 2007ra bitartean, eskualde-administrazioen diru-sarrerak eta gastuak antzeko erritmoan handitu ziren, eta, horri esker, antzeko aurrekontu-orekari eutsi ahal izan zitzaion. 2007tik 2009ra, gastuak diru-sarrerak baino askoz ere handiagoak izan ziren. 2009tik 2011ra, diru-sarrerak behera egin zuten nabarmen, eta, horren ondorioz, defizita oso azkar handitu zen, gastuak behera egin arren. 2011tik aurrera, azkenik, diru-sarrerak gradualki suspertzen hasi ziren, eta gastuak egonkortu egin ziren; horrek defizita murrizteko aukera eman zuen, aldiaren azken zatian orekatik nahiko hurbil dauden mailetara iritsiz.



3.2 grafikoan ikusten denez, aztertutako aldian autonomia-erkidegoetako diru-sarreretan nahiz gastuetan erregistratutako aldakuntzak biztanleko oso garrantzitsuak izan dira. 2003tik 2009ra arte, autonomia-erkidegoetako diru-sarrerak biztanleko, prezio konstanteetan neurtutakoak, 500 euro inguru handitu ziren; ondoren, 900 eurotik gorako ererikoa izan zuten, eta, azkenik, 2016. urtean, 2004an zuten maila berreskuratu zuten. Modu berean, **biztanleko gastu errealak 900 euro handitu zen 2003tik 2009ra, eta, orduz geroztik, 570 euro murriztu da; hasierako erregistroa baino 300 euro gorago gaude oraindik, edo 2005ean eta 2006an behatutako gastu errearen antzeko mailan.**


3.2 grafikoan ikus daitekeen gastu ez-finantzarioa hiru kontu-sail handitan zati daiteke: i) kapital-gastuak (inbertsio errealak eta kapital-transferentziak); ii) interes-gastuak eta iii) interesik gabeko gastu korrante garbia, zeinak langileen gastuak, ondasun eta zerbitzuen erosketak eta transferentzia korranteak hartzen dituen barnean. 3.3 grafikoak kontu-sail horien bilakaera laburtzen du, diru-sarrera eta gastu agregatuak bezala normalizatu ondoren.

**3.3 grafikoa** Doitutako gastu ez-finantzarioaren osagaiak euro biztanleko, 2010eko prezio konstanteetan autonomia-erkidegoen multzoa



Iturria: BBVA Research

**3.4 grafikoa** Interesik gabeko gastu korrante garbiaren osagai nagusiak, euro biztanleko, 2010eko prezio konstanteetan autonomia-erkidegoen multzoa




Iturria: BBVA Research

Grafikoan ikus daitekeenez, **gastuaren hiru osagaien profilak oso desberdinak dira. Inbertsioaren kontu-sailak oso azkar murrizten dira aldiaren bigarren zatian**, eta hasierako balioaren erdian kokatzen dira, gutxi gorabehera; **interesei dagokien gastua hirukoiztu egiten da urte gutxian**, zorraren metatze azkarraren eta arrisku-saria igotzearen ondorioz. Hala ere, kontu-sail hori nabarmen murriztu da azken bi ekitaldietan, funtsean, gobernu zentralak autonomia-erkidegoei LFAn eta beste likidotasun-tresna batzuetan eskaini dizkien baldintza finantzarioak hobetu direlako. Bestalde, **gastu korrantearen zatirik handienak gastu osoak baino ereriko motelagoa jasango du 2009. urtetik aurrera**, eta, 2013an, gorantz hasiko da; 2016. urtean, 2008ko mailara iritsiko da, eta 2009an lortutako puntu gorenera hurbiltzen hasiko da.

3.4 grafikoak interesik gabeko gastu korrante garbiaren hiru osagai nagusien bilakaera erakusten du: soldatapekoen ordainsaria, tarteko kontsumoen erosketa eta herri-administrazioek zuzenean sortzen ez dituzten gizarte-laguntzak (hau da, zentro publikoetan eskainitako osasun-zerbitzua eta hezkuntza kanpoan utzita). Hiru aldagai horiek interesik gabeko gastu korrante osoaren antzeko profila erakusten dute: igoera handia izan zuten 2009 arte, eroriko nabarmena jasan zuten gero, eta suspertze arina izan dute azken ekitaldietan, bereziki langileei dagokien biztanleko gastuen kasuan, % 9 inguru handitu baitira termino errealetan 2013tik 2016ra bitartean.

**3.5 grafikoa** Doitutako gastu ez-finantzarioaren urteko batez besteko aldakuntza biztanleko (KN) 2010eko prezio konstanteetan eta osagaietan euro urteko, hainbataldi




Iturria: BBVA Research

**Laburpen-moduan, doitutako gastu ez-finantzario errealearen eta horren osagaien urteko batez besteko aldakuntza erakusten du 3.5 grafikoak**, urteko eurotan eta hainbat alditan neurtuta. 2003tik 2009ra artean, urteko 146 euroko batez besteko erritmoan handitu zen biztanleko gastu osoa prezio konstanteetan, funtsean, interesik gabeko gastu korrante garbia handitzeari esker. 2009tik 2013ra bitartean, gutxi gorabehera, lehenago handitu zen erritmo berean murriztu zen gastu osoa, baina inbertsioaren erorikoak murrizketa horren erdia bereganatu zuen, gastu korrantearen erorikoa arinduz. Azkenik, 2013tik aurrera, gastua suspertzen hasi zen, eta gastu korrantea gastu osoa baino askoz ere erritmo handiagoan suspertu zen; inbertsioak, berriz, beherantz jarraitu zuen, baina erritmo txikiagoan.

### 3. Nafarroaren kasua





**Biztanleko diru-sarrera eta gastu doitu errealen bilakaera laburtzen du 3.6 grafikoak, Nafarroako Foru Erkidegoak eta autonomia-erkidegoen multzoak izandakoa;** aztertutako aldiaren hasierako urtean 100 oinarria duten indize gisa adierazi dira bi magnitudeak. Grafikoan ikus daitekeenez, **Nafarroaren diru-sarreraren eredia batez bestekoaren** desberdina da, diru-bilketaren gutxitze eta errekupeazioa goiztiarrago batekin eta, azken urteetan, egonkortze batekin. Gastuan, aldiz, bilakaera antzekoa da baina, Nafarroaren kasuan, Espainiako batez-bestekoaren azpitik mantentzen da, aldaketa leunagoekin, nola gorantz hala beherantz.

**3.6 grafikoa** Nafarroako egoera, autonomia-erkidegoen batez bestekoarekin alderatuta: doitutako gastu eta diru-sarrera ez-finantzarioak, biztanleko eurotan eta 2010eko prezio konstanteetan, 2003 = 100



Iturria: A. de la Fuente

**3.7 grafikoa** Nafarroako egoera, autonomia-erkidegoetako batezbestekoarekin alderatuta: gastuaren osagaiak, biztanleko eurotan eta 2010eko prezio konstantetan, 2003 = 100



— Nafarroa — AAEE guztira

Iturria: A. de la Fuente

3.7 grafikoa ikus daitekeenez, Nafarroak ere baditu ezaugarri berezi batzuk gastu ez-finantzarioaren osagaien bilakaerari dagokionez. Kasu gehienetan, **gastu-kontzeptuen profila batez besteko nazionalaren azpitik dago argi eta garbi, aztertutako aldiaren zati handi batean.**

## Erreferentziak

de la Fuente, A. (2017). "Las finanzas autonómicas en 2016 y entre 2003 y 2016." BBVA Research, 17/14 Lan Dokumentua.

[https://www.bbvaresearch.com/wp-content/uploads/2017/05/Finanzas\\_aut\\_WP.pdf](https://www.bbvaresearch.com/wp-content/uploads/2017/05/Finanzas_aut_WP.pdf)

Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailera Nagusia (IGAE, 2017). "Operaciones no financieras del subsector administración regional y detalle por comunidades".

<http://www.igae.pap.minhap.gob.es/sitios/igae/esES/ContabilidadNacional/infadmPublicas/infadmcomunidadesautonomas/Paginas/ianofinancierasCA.aspx>

## 4. Taulak

### 4.1 koadroa Euskadiko ekonomiaren koiuntura adierazle nagusiak

	2016		Batazbesteko hazkundea urte haseratik (u/u)		Azken datua (h/h, ueez)		
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Azken hilabetea
<b>Txikizkako salmentak</b>	3,3%	3,7%	2,5%	1,0%	-2,0%	-0,3%	urr-17
<b>Matrikulazioak</b>	5,3%	12,4%	7,3%	7,9%	-6,8%	-1,8%	urr-17
<b>ZSJI (IASS)</b>	4,1%	4,2%	10,3%	6,5%	3,0%	0,7%	ira-17
<b>Bidaiari egoiliarrek (1)</b>	9,3%	4,2%	2,3%	0,7%	-2,6%	0,6%	urr-17
<b>Egoiliarren ostatu-gauak (1)</b>	8,6%	3,6%	2,7%	0,2%	-1,2%	1,5%	urr-17
<b>IPI</b>	0,1%	1,6%	-0,8%	1,8%	-7,4%	0,1%	ira-17
<b>Etxebizitza bisatuak</b>	43,0%	30,2%	-18,6%	24,0%	-25,1%	-42,3%	ago-17
<b>Etxebizitza salerosketak</b>	14,0%	14,0%	10,1%	10,1%	-2,6%	-2,6%	ira-17
<b>Esportazio Errealak (2)</b>	-1,4%	3,7%	-3,8%	8,8%	8,3%	0,5%	ira-17
<b>Inportazioak</b>	-0,4%	2,6%	-6,1%	5,6%	-4,4%	0,3%	ira-17
<b>Bidaiari Atzerritarrek (3)</b>	4,8%	10,1%	0,8%	6,2%	0,8%	0,4%	urr-17
<b>Atzerritarren Ostatu-gauak (3)</b>	6,9%	9,6%	4,4%	4,2%	-37,8%	1,2%	urr-17
<b>Afiliazioa SSn</b>	2,6%	3,0%	2,9%	3,6%	0,4%	0,3%	aza-17
<b>Langabezia Erregistratua</b>	-7,5%	-8,6%	-9,3%	-9,5%	-1,3%	-0,7%	aza-17

(1) Espainiako Egoiliarrek. (2) Ondasun esportazioak. (3) Espainiako egoiliarrek ez direnak.  
Iturria: BBVA Research eta Espainiako ministerizetan (SOIM, EOM eta ITMM) oinarrituta

### 4.2 koadroa EDB: aurreikuspen makroekonomikoak (u/u) (Urte arteko bariazio-tasak %-tan, kontraktorik adierazi ezean)

	2014	2015	2016	2017 (a)	2018 (a)
<b>BPG prezio konstanteetan</b>	<b>1,4</b>	<b>2,0</b>	<b>1,8</b>	<b>2,2</b>	<b>1,8</b>
Kontsumo pribatua	0,9	1,8	2,0	1,8	1,7
Kontsumo publikoa	0,7	1,3	1,7	1,3	1,3
Kapital Finkoaren Eraketa Gordina	1,9	3,0	4,5	4,0	3,7
Izakinak (*)	0,3	0,0	-0,1	0,0	0,0
<b>Barne eskaria (*)</b>	<b>1,3</b>	<b>1,9</b>	<b>2,3</b>	<b>2,1</b>	<b>2,0</b>
Esportazioak (ondasun eta zerbitzuak)	4,6	6,1	3,3	4,7	2,9
Inportazioak (ondasun eta zerbitzuak)	4,9	6,5	4,7	4,7	3,5
<b>Kanpo eskaria (*)</b>	<b>0,1</b>	<b>0,1</b>	<b>-0,5</b>	<b>0,2</b>	<b>-0,2</b>
<b>Prezioak</b>					
KPI	0,4	0,0	0,2	1,5	1,2
Azpiko KPI	0,9	0,8	0,8	1,1	1,4
<b>Lan Merkatua</b>					
Enplegua	0,6	1,0	1,4	1,6	1,3
Langabezia tasa (bizt.akt. %)	11,6	10,9	10,0	9,2	8,5
<b>Sektore publikoa</b>					
Defizita (BPGren %)	-2,6	-2,1	-1,5	-1,2	-1,1
Zorra (BPGren %)	92,0	90,3	89,2	87,1	84,8
<b>Kanpo sektorea</b>					
Kontu korrante saldoa (BPGren %)	2,5	3,2	3,3	3,2	3,0

Aurreikuspenak dira atzea zuria ez dutenak. (\*) hazkundeari egindako ekarpena.

Aurreikuspenen itxiera-data: 2017ko azaroak 3.

Iturria: erakunde ofizialak eta BBVA Research



**4.3 koadroa** Aurreikuspen makroekonomikoak: Barne Produktu Gordina

(%, urteko batez bestekoa)	2014	2015	2016	2017 (a)	2018 (a)
<b>Estatu Batuak</b>	2,6	2,9	1,5	2,1	2,2
<b>EDB</b>	1,4	2,0	1,8	2,2	1,8
<b>Alemania</b>	1,9	1,5	1,9	2,2	1,8
<b>Frantzia</b>	1,0	1,0	1,1	1,7	1,7
<b>Italia</b>	0,2	0,9	1,1	1,5	1,3
<b>Espania</b>	1,4	3,4	3,3	3,1	2,5
<b>Erresuma Batua</b>	3,1	2,3	1,8	1,4	1,2
<b>Latinoamerika *</b>	0,9	-0,4	-1,3	1,1	1,6
<b>Mexiko</b>	2,3	2,7	2,0	2,2	2,0
<b>Brasil</b>	0,5	-3,8	-3,6	0,6	1,5
<b>Eagles **</b>	5,4	4,7	5,2	5,3	5,1
<b>Turkia</b>	5,2	6,1	2,9	6,0	4,5
<b>Asia-Ozeano Barea</b>	5,6	5,6	5,6	5,5	5,3
<b>Japonia</b>	0,2	1,1	1,0	1,4	1,0
<b>Txina</b>	7,3	6,9	6,7	6,7	6,0
<b>Asia (Txina gabe)</b>	4,2	4,5	4,7	4,4	4,6
<b>Mundua</b>	3,5	3,4	3,3	3,5	3,5

(a) aurreikuspena.

\* Argentina, Brasil, Txile, Kolonbia, Mexico, Peru eta Venezuela.

\*\* Saudi Arabia, Bangladesh, Brasil, Txina, Filipinak, India, Indonesia, Irak, Mexiko, Nigeria, Pakistan, Errusia, Tailandia eta Turkia.

Aurreikuspenen itxiera-data: 2017ko azaroak 3.

Iturria: BBVA Research eta NDF

**4.4 koadroa** Zor publikoaren 10 urterako interes tasa

(%, urteko batez bestekoa)	2014	2015	2016	2017 (a)	2018 (a)
<b>Estatu Batuak</b>	2,53	2,13	1,84	2,34	2,62
<b>Alemania</b>	1,22	0,52	0,13	0,43	0,97

(a) aurreikuspena.

Aurreikuspenen itxiera-data: 2017ko azaroak 3.

Iturria: BBVA Research eta NDF

**4.5 koadroa** Aurreikuspen makroekonomikoak: kanbio tasak

(Urteko batez bestekoa)	2014	2015	2016	2017 (a)	2018 (a)
<b>EUR-USD</b>	0,75	0,90	0,90	0,89	0,83
<b>USD-EUR</b>	1,33	1,11	1,11	1,13	1,20
<b>USD-GBP</b>	1,65	1,53	1,35	1,28	1,30
<b>JPY-USD</b>	105,82	121,07	108,82	112,12	117,33
<b>CNY-USD</b>	6,14	6,23	6,64	6,79	6,83

(a) aurreikuspena.

Aurreikuspenen itxiera-data: 2016eko azaroak 3.

Iturria: BBVA Research eta NDF

**4.6 koadroa** Aurreikuspen makroekonomikoak: diru-politikaren interes-tasak

(Fin de periodo, %)	2014	2015	2016	2017 (a)	2018 (a)
0,25	0,50	0,75		2,00	0,25
0,05	0,05	0,00		0,00	0,05
5,60	4,35	4,35		4,10	5,60

(a) aurreikuspena.

Aurreikuspenen itxiera-data: 2017ko azaroak 3.

Iturria: BBVA Research eta NDF

**4.6 koadroa** Espainia: aurreikuspen makroekonomikoak (Urte arteko bariazio-tasak %-tan, kontraktorik adierazi ezean)

(%, urteko batez bestekoa)	2014	2015	2016	2017 (a)	2018 (a)
<b>Jarduera</b>					
BPG erreala	1,4	3,4	3,3	3,1	2,5
Kontsumo pribatua	1,5	3,0	2,9	2,6	2,1
Kontsumo publikoa	-0,3	2,1	0,8	1,3	1,8
Kapital eraketa gordina	4,7	6,5	3,3	4,7	3,6
Ekipoak eta makineria	5,9	11,5	5,0	5,6	2,8
Eraikuntza	4,2	3,8	2,4	4,5	3,8
Etxebizitza	11,3	-1,0	4,4	8,2	5,9
Barne-eskaria (hazkudeari egin ekarpena)	1,9	3,9	2,5	2,6	2,3
Esportazioak	4,3	4,2	4,8	5,0	4,3
Inportazioak	6,6	5,9	2,7	3,8	3,8
Kanpo-eskaria (hazkudeari egin ekarpena)	-0,5	-0,4	0,7	0,5	0,3
BPG nominala	1,2	4,1	3,6	4,0	3,9
(Mila milioi euro)	1037,8	1080,0	1118,5	1163,4	1208,8
<b>Lan merkatua</b>					
Enplegua, BAI (EPA)	1,2	3,0	2,7	2,7	2,3
Langabezia tasa (biztanleria aktiboaren %)	24,4	22,1	19,6	17,1	15,5
CNTR enplegua (lanaldi osoaren baliokidea)	1,0	3,2	3,0	2,8	2,1
Lan-faktorearen ageriko produktibitatea	0,3	0,3	0,3	0,3	0,5
<b>Prezio eta kostuak</b>					
KPI (urteko batez bestekoa)	-0,2	-0,5	-0,2	1,9	1,4
KPI (aldi bakoitzaren amaieran)	-1,0	0,0	1,6	1,2	1,7
BPGren deflatoea	-0,2	0,6	0,3	0,9	1,3
Soldatapekoen ordainsaria	0,1	1,6	-0,3	0,1	1,4
Unitateko lan-kostua	-0,2	1,4	-0,6	-0,3	1,0
<b>Kanpo-sektorea</b>					
Kontu korrante balantza (BPGren %)	1,1	1,1	1,9	1,8	1,5
<b>Sektore publikoa (*)</b>					
Zorra (BPGren %)	100,4	99,4	99,0	98,3	97,0
Herri Administrazioen saldoa (BPGren saldoa) (*)	-5,8	-5,2	-4,3	-3,1	-2,4
<b>Etxeak</b>					
Errenta nominal eskuragarria	1,1	2,2	2,0	2,8	4,6
Aurrezki tasa (errenta nominalaren %)	9,4	8,8	7,9	6,4	7,4

Urte arteko bariazio-tasak %-tan, kontraktorik adierazi ezean.

(a) aurreikuspena.

Aurreikuspenen itxiera data: 2017ko azaroak 3.

(\*) Espainiako finantza erakundeei emaniko laguntzak kenduta.

Iturria: BBVA Research

## 5. Glosarioa

### Siglak

- AAEE: Autonomia Erkidegoak
- BAI: Biztanleria Aktiboaren Inkesta
- BBVA - GAIN: BBVAren jarduera globalaren indizea
- BBVA: Banco Bilbao Vizcaya Argentaria
- BPG: Barne Produktu Gordina
- CEOE: Enpresaburuen Elkartearen Espainiako Konfederazioa
- CEPYME: Enpresa Txiki eta Ertainen Espainiako Konfederazioa
- CNTR: hiru hileroko kontabilitate nazionala
- CRE: Espainiako Eskualde Kontabilitatea
- EAE - BBVA:Jarduera Ekonomikoari buruz BBVA inkesta
- EAGLEs: garatzeko bidean dauden eta hazkunderako liderrak diren ekonomiak (Emerging and Growth-Leading Economies)
- EB: Europar Batasuna
- EBZ: Europako Banku Zentrala
- EDB: Ekonomia eta Diru Batasuna
- ENKA: enplegu eta negoziozko kolektiborako akordioa
- ETE: enpresa txiki eta ertainak
- Euribor: euroaren eremuko diru-merkatuko banku arteko erreferentzia-tasa (Euro interbank Offered Rate)
- FED: Erreserba Federala (Federal Reserve System)
- GAKN: Gastua Azken Kontsumo Nazionalan
- GK: Gobernu Kontseilua
- HEH: Hiri Eremu Handia
- HHAA: Herri Administrazioak
- INE: Estatistikako Institutu Nazionala
- KPI: Kontsumo Prezioen Indizea
- I.o.e.: lanaldi osoari dagokion enplegua
- LATAM: Latinoamerikari dagokion agregatua; honen barnean sartzen dira Argentina, Brasil,Txile, Kolonia, Mexiko, Peru eta Venezuela
- MEYSS: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa
- MICA-BBVA: momentuko jarduera-adierazleen BBVA eredia
- MINHAFP: Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioa
- SEB: beste sektore egoiliar batzuk
- UEEZ: urtarokotasun eta egutegi-eraginak zuzenduta
- UTB: Urteko Tasa Baliokidea

### Laburdurak

- h/h: hiruhileko arteko aldaketa
- KT: konfiantza tartea
- mM: mila milioi
- mp: merktu preziotan
- op: oinarrizko puntuak
- p.p.: puntu portzentualak
- u/u: urtetik urterako aldaketa

## LEGE-OHARRA

BBVA Research-eko sailak egindako dokumentu honek dibulgazio-izaera du, eta egindako datari dagozkion datuak, iritziak eta estimazioak ditu, bertan landutakoak edo fidagarri irizten diegun iturrietatik datozenak edota berorietan oinarrituta egin direnak; hala ere, BBVAk ez ditu bere kabuz egiaztatu beroriek. Hortaz, berorien zehaztasunari, osotasunari edo zuzentasunari buruzko bermerik ez du ematen BBVAk, ez berariaz eta ez modu implizituan.

Dokumentu honetan izan daitezkeen estimazioak oro har onartuta dauden metodologiak erabiliz landu dira, eta halakotzat hartu behar dira, hau da, aurreikuspen edo proiektioetat. Aldagai ekonomikoaren bilakaera historikoak (positiboa edo negatiboa) ez du bermatzen etorkizunean bilakaera baliokidea izango dutenik.

Dokumentu honen edukiak aldaketak izan ditzake, aurretiazko abisurik gabe, adibidez, testuinguru ekonomikoaren arabera edota merkatuaren gorabeheren arabera. BBVAk ez du inolako konpromisorik hartzen ez dokumentua eguneratzeko eta ez aldaketa horien berri emateko ere.

BBVAk ez du beregain inolako erantzukizunik dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzearen ondorioz zuzenean edo zeharka gerta daitezkeen inolako galeraren aurrean.

Ez dokumentu hau eta ez jasotzen duen edukia ere ez dira inolaz ere eskaintza, gomendio edo erosketa-eskaera, aktibo edo tresna finantzarioak erosteko, inbertsioak desagiteko edo interesak lortzeko, eta ezin dute izan inolako kontratu, konpromiso edo erabakiren oinarri.

Dokumentu honek gara ditzakeen aldagai ekonomikoekin lotuta egon daitezkeen aktibo finantzarioetan egin daitezkeen inbertsioei dagokienez, irakurleek argi eta garbi izan behar dute ezin dutela dokumentu hau beren inbertsioei buruzko erabakiak hartzeko oinarritzat hartu, eta inbertsio-produktuen eskaintzak egin diezazkieketen pertsonak edo erakundeak legez behartuta daude horrelako erabaki bat hartzeko beharrezkoa duten informazio guztia ematera.

Honako dokumentu honen edukia jabetza intelektualari buruzko legediak babesten du. Berariaz debekatuta dago berau erreproduzitzea, aldatzea, banatzea, publikoki zabaltzea, eskuragarri jartzea, zatiak ateratzea, berriro erabiltzea edo bidaltzea edo beste edozein helburutarako erabiltzea, edozein bitarteko edo prozedura medio, legez baimendutako kasuetan salbu eta BBVAk berariaz emandako baimena dutenean salbu.

## Txosten hau Espainia eta Portugalgo Unitateak prestatu du:

### Espainia eta Portugalgo Ekonomialari Burua

Miguel Cardoso  
miguel.cardoso@bbva.com  
+34 91 374 39 61

**Ignacio Archondo**  
ignacio.archondo@bbva.com  
+34 673 70 60 36

**Joseba Barandiaran**  
joseba.barandia@bbva.com  
+34 94 487 67 39

**Giancarlo Carta**  
giancarlo.cart@bbva.com  
+34 673 69 41 73

**Juan Ramón García**  
juanramon.gl@bbva.com  
+34 91 374 33 39

**María Gómez de Olea**  
maria.gomezdeolea@bbva.com  
+34 91 537 79 11

**Antonio Marín**  
antonio.marin.campos@bbva.com  
+34 648 600 596

**Myriam Montañez**  
miriam.montanez@bbva.com  
+34 638 80 85 04

**Virginia Pou**  
virginia.pou@bbva.com  
+34 91 537 77 23

**Camilo Rodado**  
camilo.rodado@bbva.com  
+34 91 537 54 77

**Pep Ruiz**  
ruiz.aguirre@bbva.com  
+34 91 537 55 67

**Angie Suárez**  
angie.suarez@bbva.com  
+34 91 374 86 03

**Camilo Andrés Ulloa**  
camiloandres.ulloa@bbva.com  
+34 91 537 84 73

## BBVA Research

### Grupo BBVAko Ekonomialari Burua

Jorge Sicilia Serrano

#### Analisi Makroekonomikoa

Rafael Doménech  
r.domenech@bbva.com

#### Ekonomia Agertoki Globalak

Miguel Jiménez  
mjimenezg@bbva.com

#### Finantza Merkatu Globalak Globales

Sonsoles Castillo  
s.castillo@bbva.com

#### Modelizazioa eta Epe Luzeko Analisi Globala

Julián Cubero  
juan.cubero@bbva.com

#### Berrikuntza eta Prozesuak

Oscar de las Peñas  
oscar.delaspenas@bbva.com

#### Finantza Sistema eta Erregulazioa

Santiago Fernández de Lis  
sfernandezdelis@bbva.com

#### Herrialde arteko koordinazioa

Olga Cerqueira  
olga.gouveia@bbva.com

#### Erregulazio Digitala

Álvaro Martín  
alvaro.martin@bbva.com

#### Erregulazioa

María Abascal  
maria.abascal@bbva.com

#### Finantza Sistemak

Ana Rubio  
arubiog@bbva.com

#### Inklusio Finantzieroa

David Tuesta  
david.tuesta@bbva.com

#### Espainia eta Portugal

Miguel Cardoso  
miguel.cardoso@bbva.com

#### Estatu Batuak

Nathaniel Karp  
Nathaniel.Karp@bbva.com

#### Mexiko

Carlos Serrano  
carlos.serrano@bbva.com

#### Ekialde Hurbila, Asia eta Geopolitika

Álvaro Ortiz  
alvaro.ortiz@bbva.com

#### Turkia

Álvaro Ortiz  
alvaro.ortiz@bbva.com

#### Asia

Le Xia  
le.xia@bbva.com

#### Hego Amerika

Juan Manuel Ruiz  
juan.ruiz@bbva.com

#### Argentina

Gloria Sorensen  
gsorensen@bbva.com

#### Txile

Jorge Selaive  
jselaive@bbva.com

#### Kolonbia

Juana Téllez  
juana.tellez@bbva.com

#### Peru

Hugo Perea  
hperea@bbva.com

#### Venezuela

Julio Pineda  
juliocesar.pineda@bbva.com

INTERESDUNAK ZUZENDU HONA: BBVA Research: Calle Azul, 4. Edificio de la Vela - 4ª y 5ª plantas. 28050 Madrid (España). Tel.: +34 91 374 60 00 eta +34 91 537 70 00 / Fax: +34 91 374 30 25 - bbvaresearch@bbva.com www.bbvaresearch.com